

noaua

**Legaldi berrirako
130 erronka ezarri ditu
udal gobernu taldeak**

**Greba deialdiak jarraipen
zabala izan zuen herrian**

**GuraSOS: “Erraustegiaren
transformadorea
baimenik gabe eraiki
eta piztu zuten”**



Entitateak ere, Euskaraldiarekin bat



FUNERARIA GONZALEZ

EHORZTETXEA

munalurra 8, USURBIL

**OCASO, SANTALUCIA...IZANEZ GERO,
HERIOTZA GERTATZEN BADA,
DEITU ZUZENEAN GURE BULEGORA 24H,**
(edo aseguruari gure zerbitzuak eskatu).

MOMENTU LATZETAN DENETAZ ARDURATZEN GARA

943 36 21 63 (24H)

•BEILATOKI GUZTIAK: USURBIL, ERREKALDE... •ERRAUSKETAK



www.funerariagonzalez.es

**Opariak eta
barruko
landareak**

URTINEA

San Esteban Auzoa, Usurbil - Tel: 943 36 22 55

EGUNERO ETA GAUERO IREKITA

MENU BERRIAK

PUNTAPEX 8 - 943 369139

WWW.ARTZABALJATETXEA.COM



Albistearen iruditan

31. Argia Sariak banatu dituzte

Euskarazko kazetaritza eta komunikazioaren eremu ezberdinetako proiektu eta ekimenak saritu zituzten urtarrilaren 31n Atxega Jauregian:

- **Irratia:** Azkoitiko Kontrako Eztañe irratiko "Hankak lurrin" saioa (Xabier Arenaza, Iñaki Segurola eta Miel Rodriguez).
- **Prensa:** Berria egunkariako igandee-tako azalak (Jakes Goikoetxea eta Maixa Olanok jaso zuten saria).
- **Ikus-entzunezkoa:** "Ez, eskerrik asko. Gladysen Leioa" dokumentala (Bertha Gaztelumendi eta Sabino Ormazabal).
- **Internet:** "Egunean Behin" aplikazioa (CodeSyntax).
- **Kanpaina:** apustu etxe eta joko aretoen aurkako mugimenduak (Gasteiz, Iruña, Bilbo eta Azpeitiko eragileak).
- **Merezimenduzkoa:** Gure Zirkua (Iker Galartza, Unai Zabaleta eta Ane Mirenek jaso dute saria).



Atxega jauregian egin zen sari banaketa.

Laburrean

Antena kolektiboak aldatzeko epea otsailaren 11n amaituko da

Konexio abiadura eta sareak duen erantzuteko gaitasuna azkartuko duen 5G teknologia berria txertatzeko frekuentziaz aldatu beharko dira telebista kateak, eta horretarako, aipatu moduan, Lurreko Telebista Digitaleko antena ko-

lektiboak egokitu beharko dira.

Aldaketa hauek otsailaren 11 baino lehen bideratu beharko dira. Frekuentzia aldaketak ez du telebista kate berriak ikustea ahalbidetuko ezta zeudenak desagertzea ere.

Herriko argazkilarien erakusketa

Einean guraso eskolak antolaturiko ikastaroen artean da Ibai Arrietak oinarritzko argazkilaritzari buruz eskaintzen duena. Ikasleek eginiko argazkien bilduma ikusi ahal izango duzue Sutegiko erakuslehoan, otsailaren 10etik 23ra.

noaúa

Kultur Elkartea

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil

943 360 321 ||| elkartea@noaúa.eus ||| www.noaúa.eus

Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:

Idoia Torregarai.

Aldizkariko koordinatzailea:

Imanol Ubeda.

Idazkaria: Aizpea Aizpurua.

Disinu berria: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua:

Imanol Ubeda, Aritz Lasarte, Itxaso Orbegozo.

Publizitatea: Beatriz Alda, publizitatea@noaúa.eus

Banaketa: Iñaki Irazusta,

Iban Maritxalar.

Tirada: 2.930 ale.

Lege-Gordailua: SS-668-96

ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

Harremanetarako: erredakzioa@noaúa.eus



Gipuzkoako Foru Aldundia



Imanol Ubeda

Gu eta “gure gauzak”

Euskalduntasunaz kezkatuta bizi direnak beti izan al dira hain kritikoak? Oraingo kontua da ala aspalditik dator? Sare sozialek mikaztu ote dute eztabaida? Beti egongo da solasaldia trabatzera hurbilduko denik. Ados. Xextran aritzeko joera hori gure DNAn egongo da tatuaturik eta honakoa mutazio bat baino ez da. Euskarri zaharretatik berrietara igaro dena. Auskalo. Gutxi gara, gutxi garenez, eta barru-barrutik bizi ditugu “gure gauzak”. Hori ere egia da.

Salbuespenak badira, ordea. Gauzak ilun samar ikusten dituenari Kike Amonarriz eta bere mezu itxaropentsuak aholkatuko nizkioke. Dosi txi-

kitan onuragarriak dira, eta ez dute albo-kalterik eragiten.

Kontuak kontu eta salbuespenak salbuespen, bat baino gehiago dira transmisioarekin kezkatuta dabilzanak. Ez da berria. Aurreko eta ondorengo belaunaldien arteko katebegia apurtuko den beldur dira. Ez zaie arrazoirik falta. Mundu global honetan, gero eta zailago dago nortasun ikurrei eustea. Eta kutsadura kulturala zein linguistikoa neurtu, zaindu eta kontrolatzeko sarerik ez dugu. Oraingo ez behintzat. Joxe Azurmendi pentsalariak aspaldian azaldu zuen bezala, *gure herria pobrea da / ez dauka pirata koxkor pare bat / langile sofritu batzuk, / muga zentzugabe asko, / mila zori-*

gaizto / besterik. Ez da gutxi. / Euri gortina batek ixten du / gure kalendarioa. / Ez, ba, bilatu kondaira unibertsalen / liburu handietan gure inperiorik.

Aurreko batean, Daniel Scott argentinarraren elkarrizketatzeko aukera izan nuen. *Bertsopayakopla* liburua plazaratu berri du (Laurok liburudendan aurkituko duzue) eta hemengo nahiz hango inprobisazio jardueraz luze zabal aritu ginen hizketan. Hausnarketatik beste du sormenetik bere liburuak. Solasaldiaren une batean, hauxe aitortu zidan: “hemen dimentsio handiagoa du bertsoaritzak. Batez ere gazteen artean. Bertsozale gazte asko dago hemen eta

hori ez da horrela gertatzen Argentinan”. Bere sorterrian, koplek eta payadek dituzten jarraitzaileen profila beste bat dela adierazi zidan. “Euskal Herrian, bertsoaritzaren tradizioa oso zaharra da baina garai berrietara egokitzen jakin du. Doinuak ere berritzen dituzte. Hori oso ona da”.

Hain agerikoa izanik ere, oso argigarria egin zitzaidan bere hausnarketa. Zer pentsatua eman zidan. Lehen esan dut. Gutxi gara, gutxi garenez, eta oso gertutik bizi ditugu “gure gauzak”. Gano-raz eta patxadaz ikusteko, gertuegi seguruena. Alegia, akaso ez dugula hain apokaliptiko agertzeko arrazoirik, ezta?

Imanol Ubeda

Aritz Gorriti

Luis Aranalde

Itxaso Orbegozo

Ika-mika

Aurrera Gattunk 2

Nire bizilagunen harridura aurpegia aurreikusituz dezaket aurreko artikulua irakurrita. Bertan, hamarkada askotan egon den oinarritzko energia eta elikadura eskakizuna arriskuan dago petrolioaren “pikoa” eta larrialdi energetikoarengatik. Honetaz jabetzeko Youtuben dagoen Aitor Iruzkietaren “La cruda realidad” ikusi besterik ez dago.

Eta imajina dezaket nire bizilagunen harridura eta ardura aurpegia Udalak eta honen gobernu taldeak artikulatu honekiko izan duen erantzun faltagatik. Ez daki edo ez du erantzuten. Udaleko ardura-dunek hiru erantzun hauetako bat eman beharko lukete zentzua erabiliz:

a) Artikuluan esandakoa ez da egia eta ez dago kezkatzeko arrazoirik.

b) Artikuluan esandakoa egia da eta, egia balitz, onartu egin beharko litzateke, nahiz eta herriaren autoantolaketakarako oztopo izan.

c) Artikuluan esandakoa egia da eta Udalak ez du ezer egin. (Erantzun zintzoa eta ondardutasun politikokoa).

Udalaren erantzun EZA ikusita, Udaletxeko plenoan eztabaidatzeko mozio bat aurkezteko erabaki dut. Mozio honek 3 oinarri ditu:

1. Gaur egungo sistema eta zibilizazio krisi egoera honetan, partehartze eta eztabaida prozesu bat eskatzen zaio Udalari edozein alderdi politikok, herri eragilek edo interesatutako dagoen Usurbilgo edozein per-

tsionak proposamen berriak aurkeztu ahal izateko Udal mailan, aurrez aipatu krisiari aurre egiteko.

Proposamen hau Udaleko plenoan 2013ko apirilaren 30ean eztabaidatu zen berdin da (bi urtez itxaron behar izan zuen kaxoian gordeta). Bertan, “Petrolioaren pikoa” eta aldaketa klimatikoaren berri ematen zen (data hartako plenoko aktan jasota dago).

2.- Usurbilgo Elikaduraren Subiranotasunari buruzko ikerketa, 2013ko martxokoa. Urte horretan, Gipuzkoako Foru Aldundiko Nekazaritza sailean eta Usurbilgo Udalean aurkeztua.

Ikerketaren izenburua: “Usurbil Proiektua, Elikadura Subiranotasuna lortzeko”.

3.- Kalezar auzoko energia berri-eragileak erabiliz energia

lortzeko ikerketa proposamena. Horretarako Ispasterren (Bizkaia) egindako proiektua hartzen da oinarri bezala. Bereaie eskaturiko proiektuak 5.400 euro + BEZ-eko kostua du. Proposamen hau 2018ko urrian aurkeztu zen Udalean.

Beharrezkoa eta premiazkoa da erabaki politikoak hartzeko eredu aldaketa Usurbilen. 6.000 pertsonen ezin dute 4-5 agintariek erabakitzen duten horren menpe egon. Eta are eta gutxiago demokratikoagoa den erakunde propio bat dugunean: Batzarre. Obedientziaren kultura, gaizki ulertutako leialtasuna, aldaketa nekeza izango da.

Lagun batek hauxe esaten dit: “Berria jaio dedin, zaharrak hil behar du”. Aurrera Gattunk.

Gabriel Valin

Xua zorionduz gurasoen etxeratzea eskatu dute

Baldintzapean aske behar zuten arren, gugandik 600 kilometrorra den Valentziako Picassenteko espetxean segitzen duten guraso Olatz Lasagabaster eta Patxi Urangarekin bereizi duten Xua-ren hirugarren urtebetetzea ospatzeko mobilizazio berezia egin zuten urtarrilaren 31n Mikel Laboa plazan. Tartako kandelak itzaliz, urtebetetze zoriontsua opa nahi izan zioten usurbildarrek zorionak zuri kantatuz.

Olatz eta Patxi “espetxean mantentzea justifikaezina da”, salatu zuten beste behin urtarriko azken ostiraleko euskal presoek eskubideen aldeko mobilizazioan. Are gehiago orain, iragarri zuten moduan, Olatz eta Patxi haur berri baten esperoan diren honetan.

Gurasoak etxeratzeko legea aplikatzea aski da

Espetxez aldatuko dituztela jakin da berriki. Hedabideen bidez jakin ahal izan dutenez, “Xuak hiru urte betetzeko atarian, Aranjuezera lekualdatuko dituztela jakin genuen. Egun



Berezia izan zen urtarrilaren 31ko elkarretaratzea.

AZKEN OSTIRALEKO ELKARRETARATZEAN ESANA

Olatz eta Patxi “espetxean mantentzea justifikaezina da”, salatu zuten. Are gehiago orain, iragarri zuten moduan, Olatz eta Patxi haur berri baten esperoan diren honetan

batzuk geroago, komunikabide “jakin” baten bidez ere, berez, Euskal Herritik gertu zegoen espetxe batera lekuz aldatzekoak zirela baina faktore berri bat medio, “egokiena” Aranjuezera eramatea zela. Faktore berri hori Olatz haurdun dagoela da. Eta orain dagoen Picassentekoa eta Aranjueze-

koak direnez amen moduloak dituzten bakarrak, ba gertuena hautatu omen da. Gertuago bai, 80 kilometro gertuago”, Mikel Laboa plazako elkarretaratzean salatu zuten.

Xua gurasoengandik bereizi eta urrundu ez eta Olatz eta Patxi Xuarekin batera etxeratzeko gogorazi zuten, “Estatuak salbuespenezko espetxe-politika “malgutzeko” egiazko borondatea balu, ez luke ezer berezirik egin behar. Beren legea aplikatu, besterik ez. Olatz eta Patxi baldintzapeko askatasunean jarriz, familia-etenik ez legoke eta haur berria Euskal Herrian jaioko litzateke”.

“Borrokan segitu behar dugu” Berriki, Bilboko eta Baionako

Sareren manifestazio jendetsuen ondotik Lakuako Gobernuak presoak Euskal Herritik gertu diren espetxeetara hurbiltzeko Madrilgo Gobernuari plan bat proposatu izana positibotzat jotzen dute elkarretaratzeko deitzaileek, “urrunketaren amaiera exijitzen duen edozein jarrera ontzat hartzen dugulako. 33 urte igaro dira urrunketa eta salbuespen penitentiarioek presoek senide eta lagunak eskubideak urratu eta beren bizitzak baldintzatzen dituztenetik”.

Krudeltzat jotzen duten espetxe politika hau bertan behera uzteko urrats berriak “tamalez, tantaka eta interes politiko jakin batzuen arabera egiten” ari dira. Argi denez, “borrokan segitu beharko dugu” aurreko ostiralean Mikel Laboa plazan bildutakoek ziotenez, “larriki gaixorik dauden presoak espetxean mantentzearekin, isolamendua-rekin eta presoak erregimen gogorretan izateko graduen politikarekin amaitzeko”. Xua eta gurasoen kasuan, Olatz eta Patxi Xuarekin etxean bueltan izateko.

Ika-mika

Urtarrilaren 30ean mobilizazio jendetsuak Euskal Herrian

Urtarrilaren 30ean, hainbat sektoreetan langileek egindako grebaz gainera, eguerdian, manifestazio oso jendetsuak egin ziren lau hiriburuetan eta hainbat herritan: 50.000 lagun Bilbon, 35.000 Iruñean, 25.000 Gasteizen, 35.000 Donostian, 4.000 Eibarren eta Debagoienako hainbat herritan ere bildu zen jendea greban. Halaber, arratsaldean Euskal Herriko lau hiriburuetan eta herrietan ere manifestazioak izan ziren.

Pentsiodunen Mugimenduak funtsezko laguntza sendo eta irmoa jaso du gizarteko sektore handien aldetik (langileria, ikasleria, gazteria, mugimendu feminista eta abarren aldetik).

Intoxikazio eta manipulazioaren kanpainak eragina izan du baina ezin izan du galarazi jende ugari Pentsiodunen Mugimenduari sostengua eta arrazoia ematea. Eskerrik asko guztioi.

Halaber, mobilizazio eta greba orokorrari elkartasuna eta sostengua eman dioten estatu espainoleko 40 bat hirietako manifestazio eta elkarretaratzeak nabarmendu nahi ditugu.

Mobilizazioen arrakasta erabakiorra izan da, azken dozena urteetako Euskal Herriko garrantzitsuenetakoa. Gizarteko sektore guztien elkarteak ekarri digu ohiko aldarrikapenen arrakasta eta honek gure helburuak lortzeko gure indarra

eta ahalmena biderkatzen ditu. Pentsioak gizarte osoaren arazoa dira, gazteen, langileen eta pentsiodunenena, eta honek ematen dio zentzua gizarteko sektore guztien prekarietatea erazteko, eta gaurko eta bihar-ko pentsiodunei pensio publiko duinak lortzeko borrokarako elkarteari.

Azken bi urte hauetako borrokan zehar, baliozkoak diren lorpen txikiak erdietsi ditugu, baina gure mobilizaziorik gabe %0,25 horrekin jarraituko genuen, ez zen hobekuntzarik izango alargunen pensioentzat, eta iraunkortasun faktorea 2023. urtera arte atzeratzea ere ez zen lortuko. Horrela bada, kalean

jarraituko dugu gure aldarrikapen justuak defendatzen, eta berriro diogu, pentsiodunentzat denborak urrea balio duela, eta presa handikoa zaigula Eusko Jaurilaritzak pentsioak 1.080 eurora arte osatzea, estatuko gobernuak gutxieneko pentsioa ordaintzea lortu arte. Dirua badago, euskal ekonomia hazi egin da; Euskal Autonomia Elkarteaz, %2,2, eta aurtengo urterako %1,9.

Dirua hobeto banatzeko, 1.080 euroko pentsiora arte osatu.

Nornahik gobernatu, pentsio publikoak defendatuko ditugu.

Pentsiodunak aurrera

130 erronka legealdi honetarako

Udazkenean zehar udal ordezkari politiko, langile eta teknikariek Azti-kerrek koordinaturiko prozesuan landu duten hurrengo lau urteotarako Legealdiko Programa, “Usurbiltzen” izenekoa aurkeztu zien udal gobernu taldeak aurreko astean Sutegiko erakustaretoan antolatu zuten ekitaldira joandako eragile anitzetako ordezkari eta herritarrei.

Guztira 2019-23 urte arterako 130 proposamen biltzen ditu Legealdirako Programak. Helburu argi batekin; herria erakitzen segitzea. Hortik, programa izendatzeko sortu nahi izan duten aditza; “Usurbiltzen”.

Legealdiko plangintzak lau ardatz izango ditu, azken urteotakoak. Gai honi lotutako informazio osoa usurbiltzen.eus atarian eta izen bereko aldizkarian jaso ahalko duzue. Udalak etxex etxe banatuko du eta udal eraikinetan eskuragarri jarriko dute.

Tarteka, eguneratzen joan asmo dute aipatu ataria, proposatu dituzten 130 neurrietako bakoitzaren “egoera zein den bertan adieraziz. Neurriren bat ezin dela garatu baloratzen bada, bertan adieraziko da, zergatiak azalduz”. Modu honetan, herritarrek erronka guztion gauzatze mailaren inguruko jarraipena egin ahal izango dute.

Herri-nortasuna

Euskara, kultura, hezkuntza, aniztasuna, feminismoa, memoria eta herri/auzoei lotutako 43 neurri “herri-nortasunaren ikur” diren balio guztiok zaindu eta indartzeko.

Hala, Parekidetasunaren eremuan, Emakumeen Etxea sortzea proposatzen dute Kalezarko Pelaiotena eraikinean, 2021-25 urte arterako Berdintasun Plana landu eta



EH Bilduk gidatzen duen gobernu taldeak legealdi osorako egitasmoen berri eman zuen aurreko ostiralean, Sutegiko erakustaretoan. Eragile anitzetako ordezkariak eta herritar ugari bertaratu ziren.

UDAL GOBERNU TALDEA

2019-23 epealdirako 130 proposamen biltzen ditu Legealdirako Programak. Helburu argi batekin; herria erakitzen segitzea. Hortik, programa izendatzeko sortu nahi izan duten aditza; “Usurbiltzen”

garatzea edota maskulinitate eredu berriak lantzea. Euskarari dagokionez, “usurbildar ele anitzez eta euskaraz biziko den herria sustatzea”. Kulturari, “herritarren auto eraketa eta ahalduzkoa bilatuko duen kultur eredu” sustatu nahi dute. Aniztasun kulturala aldarrikatzen dute. Kultura Aholku Batzordea berreskuratu edota sormena bultzatzeko politikak landu nahi dituzte.

Horrekin batera, herri ondarea berreskuratu, zaindu eta balioan jarriko dute. Hezkuntzan, herri-hezkuntza proiektu euskaldun, ireki, parte-hartzaile, berritzaile, inklusiboa sustatu nahi dute. Hezkuntza Mahaia berreskuratzea aurrekusten dute, herriko ikastetxeen arteko hezkuntza-ekimen bateratuak bultzatzea. Aniztasunaren eremuan, diag-

nosia eta plana landu eta garatuko dute.

Memoria eta bizikidetzan, 1936tik gaur arte usurbildarrek pairatutako eskubide urraketen azterlana egin asmo dute, memoria historikoa lantzearekin batera. Herri eta auzoei dagokionez, “auzo guztien Usurbil eraiki nahi dugu”. Auzo biziak nahi dituzte. Gune bakoitzeko beharrak identifikatu eta bizi-lagunekin batera proposamen ezberdinak landu nahi dituzte.

Herri jasangarria

Multzo honetan 51 proposamen bildu dituzte. Hirigintza eredu jasangarri eta ez espekulatiboa sustatzeko honako hauek, besteak beste: hurrengo 10-15 urterako Hiri Antolamendurako Plan Orokorra hasieraz onartzea, Aginagako plan berezia tramitatu eta Zubietakoaren planifikazioa, herri-bideen konponketa plangintza, Errioa Bizi! programaren garapena...


Oinezkoak ardatz izango dituen mugikortasun eredu sustatu nahi dute. Bidegorrien plana gauzatu nahi dute, garraio publikoa sustatu... Trantsizio energetikoaren eremuan, klima aldaketari aurre egin eta “ener-

gia-eraginkortasunaren aldeko apustuan sakondu eta energia berriztagarriak bultzatu” nahi dituzte. Usurbil 0.0 hondakinen prebentzio eta kudeaketa programa garatu nahi dute. Uraren kudeaketari dagokionez, “gure baliabide propioak kudeatu. Herriko ur sistema eta azpiegiturak hobetzen jarraitu”. Saneamenduko lanekin segi.

Oria, Anerreka edota Andatza natur guneak babestu eta sustatuko dituzte. Bertako elikagai ekologikoen aldeko apustuan berresten dira, “nekazaritza eta abeltzaintza jarduerak sustatuz”.

Legealdiko programaren isla, Sutegiko erakusleihoa

Udal gobernu taldea 2019-23 Legealdiko Programa aurkeztzen ari zen artean, ekitalditik jasotzen ari zenarekin sortze lan prozesu betearen aritu zen Goretti Aranburu Epelde. Sutegiko erakusleihoa duzue emaitza.



Pertsonen bizi-baldintza duinak bermatzeko gizarte politikak bultzatu nahi dituzte

Herri-balioekin bat, “tokiko garapen ekonomiko koa sustatu” nahi dute. Beterri-Buruntzako mankomunitatea garatu, ekintzailatza eta kooperatibagintza sustatu, industriaguneak modernizatu, enplegu-plana garatu, sektore arteko sinergiak indartzeko lankidetzara proiektuak gauzatu, herri merkataritza eta ostalaritza biziberritzeko plana berri-tzea, turismo planaren lanke-ta... iragarri dute.

Pertsonen bizi-baldintza duinak bermatzeko dituen gizarte politikak bultzatu nahi dituzte. Gizarte zerbitzuen inguruko gogoeta, gizarte bazterketari aurre egiteko esku-hartzeen indartzea... bideratu nahi dituzte. Zahartze aktiboa bultzatu nahi dute baita, bizi-baldintza duinak bermatuta. Hala, kolektibo honentzat tutoretzapeko etxebizitzaren proiektua abiatu



Parte-hartzean eta demokrazian sakonduko duen gobernantza eredua nahi dute Usurbilentzat. Argazkia: Udala.

Udal baliabideak eraginkortasunez kudeatu nahi dituzte, “kalitatezko zerbitzu publikoa eta eraginkorra eskaini ahal izateko”

nahi dute, Matia eta Aldundia-ekin lantzen ari diren hitzarmen soziala gauzatzea (Egune-ko Zentroa, Kalezarko auzune berria, zaintza sarea...).

Herritarren premiei erantzungo dien etxebizitza-politika garatu nahi dute. Horretarako hausnarketa prozesua abiarazi nahi dute, gazteen emantzipazio-politikak sustatu...

Adin tarte ezberdinei dagokienez, haur eta nerabeengana egokitu nahi dute herria: jolas-tokiak, eskola-bideak, biltzeko guneak... Gazteei dagokienez, “udal-jardunean ahots propioz aritzeko aukerak eman” nahi

dizkiete (Gazte Kontseilua, Zimiraren zabaltzea...).

Kirolaren eremuan, “jarduera fisikoaren eta kirolaren plan integrala garatu” nahi dute. Horretarako, mahai eragile bat, herri kirol diagnostia, azpiegituren hobekuntza... bultzatu asmo dute.

Udala herriaren zerbitzura

Parte-hartzean eta demokrazian sakonduko duen gobernantza eredua nahi dute Usurbilentzat. Auzoek ahots propioa izango dutena, udal politiketan genero-ikuspegia txertatzeko programa landu eta garatzeko duena... Udal baliabideak eraginkortasunez kudeatu nahi dituzte, Udala berrantolatzearekin batera, “usurbildarrei kalitatezko zerbitzu publikoa eta eraginkorra eskaini” ahal izateko. Administrazio elektronikoen norabidean aurrerapausoak emango dituzte. Kalitatezko enplegu publikoa sortuko dute...

Aurrekontuen likidazioa, martxa onean

Gipuzkoako Foru Aldundiak hiruhilero eskatzen dio udalari herri honen aurrekontuen likidazioari buruzko informazioa ematea eta udalbatzarretan ere berri ematen du Udalak. Hala egin zuten urtarrilaren 29an egin zen ezohiko osoko bilkuran. Behin behineko datuak eskaini zituen aurrerapen gisara Xabier Olano udal kontu hartzaileak, martxoaren 31ra arteko epea dute eta eremu honetako informazio guztia borbiltzeko. Eskaini zituen datuen artean da, iazko gastuen udal aurrekontua %69,65ean gauzatu dela jada (iaz %70,49), sarre-rena %83,73an (iaz %78,23).

Txukun doa aurrekontuen likidazio prozesua udal kontu-hartzailearen esanetan. Likideziari lotuta, udal aurrekontuok bete beharreko hiru

arau edo helburuak ere betetzen dituela gaineratu zuen Olanok. Batetik aurrekontuen egonkortasuna. Arau honen arabera, sarrera arrunten kopuruak gastuena gainditu behar du. Iazko udal aurrekontuek arau hau betetzen dute, 11,2 milioi euroko sarrerak eta 10,5 milioi euroko gastuak baitituzte. Guztira 728.000 euroko aldea.

Zorraren eta sarreraren arteko oreka

Bigarren araua zor biziari lotutakoa da. Horren arabera, zorrak ezin du sarrera arrunten %72a gainditu. Udalaren esanetan egun %17an dago. Azkenik, gastu sapaia araua dugu. Gastua nolahi eta nahi adina gehitzea eragotzi edota beste modu batera esanda, gastua mugatzen duen araua

da honakoa. 587.000 eurotan jarria lukeen mugaren azpitik da Udala, 538.000 eurotan du gastu sapaia. Arau hau ere betetzen da honenbestez, eta datuak eskutan, horri esker gastu ahalmen handiagoa izango du. Egoera hau dela, kontuhartzailak berri eman zuenez, 2017an 2 urterako plan ekonomiko finantzarioa egin behar izan zuen Udalak. Abenduaren 31n betetzen eta “ez dugu plan ekonomiko berririk egin behar izan”.

Plan estrategiko berria, behin betiko onartua

Udal diru-laguntzak arautzen dituen 2020-22 urte arterako plan estrategiko berria hasieraz onartu zuen udalbatzak azaroaren 28ko osoko bilkuran. Finkatua zegoen epean erreklamaziorik aurkeztu ez denez, behin betiko

onartu dute plan berria.

Gogoan izan, otsailaren 4an itxi zen, aurtengo diru-laguntza deialdi gehienetara (kultura, gizarte ongizatea, kirolak, ingurumena, nekazaritza eta abeltzaintza, igogailuen instalakuntza eta deserrotze eta baztertzeko sozialeko arriskuan dauden pertsonen senideentzako laguntzak) eskabideak aurkezteko epea. Baina gogoan izan, irailaren 30era arte martxan segiko dute ekintzaileei zuzenduriko bi udal diru-laguntza lerroek: batetik, Kabiene Elkarlan Gunean urtebetez proiektua garatzea ahalbidetzen duen Hasiz Hazi beka deialdiak eta lokal huts batean jardura ekonomiko berri bat jartzen duen ekintzailearentzako alokairurako laguntza deialdiak.

Otsaileko horoskopoa

Hitzak: Barretartia. Irudiak: Ainara Azpiazu Aduriz Axi.

Puntapaxeko sorginaren EROskopoa



ARIES

Aurtengo Santa Ageda eskea ezin duzu galdu, zerbait garrantzitsua gertatuko baitzaizu gau horretan. Badaezpada ere, hasi koplak errepasatzen. Hileko aholkua: Hartu makila eta... bat, bi, hiru. IEUP!



CANCER

“Otsaila katu hila” esaten du esaera zaharrak, hilabete honetan bikote bila ateratzen direlako. Zu ere antzeko ibiliko zara datozen asteetan. Hileko aholkua: Atera itzazu azkazalak!



LIBRA

Santa Agedako makilen kolpeek lurrari esaten diote udaberria laster datorrela eta esnatzen hasi behar duela. Hileko aholkua: Espabilatzen hasi behar duzu, makilakada zuk jaso nahi ez baldin baduzu!



CAPRICORNIUS

Saiatu zaitex aurtengo Inauterietan mozzorro apurtzailea, originala sortzen. Aurtengo gaia dantza denez, zergatik ez zara ausartzen Olivia Newton-John edo John Travolta Grease filmean agertzen ziren bezala ateratzen? YOU ARE THE ONE THAT I WANT! U,U,UUU!



TAURUS

Sagardotegiko afariak pirlatzen ari zaizkizu eta denbora gehiegi ematen duzu kupel eta txotx artean. Hileko aholkua: Noizean behin etxean geratzea ere ez dago gaizki.



LEO

Katarroa eta gripea harrapatzeko arrisku handia izango duzu hilabete honetan, beraz, ohean egon ahal duzun guztia. Hileko aholkua: Paracetamol andrea eta Ibuprofeno jauna izango dira zure lagunik kuttunenak.



SCORPIUS

Nork esan du Usurbil ez dela erromantikoa? Otsaila maitasunaren hilabetea da eta ibilaldi ezin ederragoak eman ditzakezu herritik atera gabe. Hileko aholkua: Erriberako paseoak ez du sekula hutsik egiten!



AQUARIUS

Zure bizitzak zentzu askorik ez duela pentsatzen ari zara azken bolada honetan. Erronka berriak aurkitu behar dituzu. Hileko aholkua: Euskaraldiko taldean primeran pasatzen dutela esan didate...



GEMINI

Aurtengo Inauterietan izugarriko arrakasta izango duzu aukeratuko duzun jantziarekin. Hileko gomendioa: Karroza atera eta bertara igotzeko aukera duzu hauxe!



VIRGO

San Valentín eguna gertu dago baina alde batera utzi behar dituzu bonboiak, afariak eta loreak. Zerbait berritzailea egin behar duzu. Hileko aholkua: Zergatik ez duzu gonbidatzen errebotera jolastera Zubietara?



SAGITARIUS

Sagarrondotik Sagardora ikastaroan izena ematea komeni zaizu, usurbildarra edo Usurbilen bizi bazara nahitaezkoa duzulako gai hau menperatzea. Hileko aholkua: Beharbada hemendik urte batzuetara sagardogile bihurtuko zara!



PISCIS

Zure urteak ospatzeak on egingo dizu, beraz, gonbidatu lagun guztiak eta gozatu azken eguna izango balitz bezala! Hileko aholkua: Gainera, gustatzen ez zaizkizun opariak Interneten jarri ditzakezu salgai.

Baratze zaintzari lotutako hitzaldi sorta hastear da

Hazi Fundazioak Europar Batasuneko FEADER funtsarekin batera finantzaturiko baratzea zaintzari buruzko hitzaldi sorta antolatu du otsaileko bigarren asterako. Potxoenean egingo dira bilkurak.

Otsailak 11, asteartea

■ 15:00-17:00 Pipermina hazteko sistema mistoa. 2019ko esperientziaren emaitzak, koko-zuntzarekin. Jorge Arizmendi (ABELUR).

■ 17:00-19:00 Piperminaren biosiaren arazoa. Santiago Laregla / Mikel Ojinaga (Neiker).

■ Matrikula: doan.

Otsailak 12, asteazkena

■ 15:00-17:00 Txertakak tomate-hazkuntzan. DeRuiter enpresako hizlaria.

■ 17:00-19:00 Klimaren eta hidroponiaren erabilera tomate-hazkuntzan. Paco Martín.

■ Matrikula: doan.

Otsailak 13, osteguna

■ 15:00-17:00 Zorriaren kontrol biologikoa. Julian Giner.

■ 17:00-19:00 Kontrol fitosanitario integratua tomatean. Paco Sala.

■ Matrikula: 36 euro.

Oharra:

Hitzaldiak erdaraz izango dira.

Izen ematea: 627 431 904
fpegipuzkoa@hazi.eus



Otsailaren 11n hasiko dira Potxoeneko hitzaldiak.

Zumarte handitu eta birgaitzeko lanak uztailean amaitzeko ituna adostu dute

Kale Nagusiko Villa Pilar eraikinaren birgaitze eta handitze lanei lotutako bi erabaki hartu zituen udalbatzak urtarrilaren 29ko osoko bilkuran. Batetik, obretan jasandako kalte-galerengatik Construcciones Moyua S.L. enpresari kalte ordainak ematea erabaki zuten. Horrekin batera, “obra-kontratutik eratorritako aldeak itun bidez konpontzeko hitzarmen transakzionala onartzea”. Gehiengo osoz onartu ziren bi proposamenak EHBilduren eta PSEren aldeko bozkekin. EAJ aurka agertu zen.

Bi erabakiok hartu beharrean aurkitu da udalbatza, abian den egitasmoa gauzatzeko bidean sortu diren gorabehera eta zailtasun nabarmenei aurre egiteko. Udal gobernu taldetik gai honek izan duen ibilbidea erreparatu zuten. 2018ko martxoan obra kontratua esleitzeko prozedura onartzen da eta urte bereko ekainean Moyua enpresari esleitzen zaio konplexutzat jotzen den proiektua. Iazko maiatzean obra kontratua aldatzea onartzen du udalbatzak, aurreikusitako gabe zeuden obra unitate berriei aurre egiteko eta uztailean obrak bukatzeko epea luzatzea erabaki zuten.

Tarte horretan, Udalaren esanetan “eraikuntza-proiektuaren konplexutasunaren ondorioz-erakin zahar bat birgaitzeko eta handitzeko esku-hartzea-, prozedurazko eta funtsezko gorabehera ugari gertatu dira kontratatutako obran zehar (kontratuaren aldaketak, prezio kontrajarriak ezartzea, epea luzatzea, eraikuntza-soluzioekiko alde teknikoak...)”.

Prezio kontrajarriak onartzeko prozesua tarteko, “lanak gauzatzeko sortutako atze-



Udal gobernuaren proposamenak alderdi sozialistaren babes eta alderdi jeltzalearen kontrako bozka jaso zuten.

ZUMARTE MUSIKA ESKOLAKO BIRGAITZE LANAK

“Moyuak uztailaren 17rako amaitu beharko ditu lanak. Bestela lanak atzeratzen diren egun bakoitzeko 10.000 euro ordaindu beharko ditu”

rapenek” gainkostuak eragin dizkiotela adierazten du Construcciones Moyua enpresak urtarrilaren 10ean idatzi baten bidez eta kalte-ordainak eskatzen dizkio Usurbilgo Udalari. Udalak aipatu “enpresak ustez jasandako kalte-galeren kuantifikazioarekin” desados agertu eta aipatu enpresaren aurkako kalteak erreklamatzeko espedientea abiarazten du, “uste baita ez dituela bete kontratuzko betebeharrak lanak egiteko epeei dagokienez, eta obrak atzerapen handia izan duela eta kalte larriak eragin dizkiola Udalari”. Epeak ez betetzeagatik Moyuari “eragindako kalte larrien ordainetan 471.465,38 euro gehi dagokion BEZ-a kalte-ordain gisa erreklamatzeko onartu zuten udalbatzak azken osoko bilkuran.

Negoiazioek epaitegietarako bidea itxi dute

Begi bistakoak dira bi aldeek

euren artean izan dituzten desberdintasunak. “Ataka horretatik ateratzeko” bi aukera zeudela gogorarazten zuen alkateak aurreko asteko udalbatzarrean. Epaitegietara jotzea edo akordioaren bidea jorratzea. Bigarren aukera honen alde egin dute asteotan. “Aldeentzako ziurgabetasun juridiko eta ekonomiko handia eragiten duen eta Usurbilgo Udalak lehentasunez defendatu behar duen interes publikoaren aurkakoa den egoera honetan, bi aldeek elkarrizketak izan dituzte erreklamazioei eta haien arteko desberdintasunei amaiera emango dien akordio bat lortzeko”. Bi aldeen negoziazioekin hitzarmen transakzional bat adostera heldu dira.

Hartutako konpromisoak

Hitzarmen honetan bi aldeek zenbait konpromiso hartu dituzte. Udalak, kredituzko aurrekontuak egokitzea eta esleitutako prezioetik %20ko gehikuntza ordaintzea enpresari. Moyuak adostua dagoen prezio itxi horretan egitea obra. “Udalari ez dio diru gehiago eskatuko obra unitate berriengatik”. Bestetik, Moyuak uztailaren 17rako amaitu beharko ditu lanak. Bestela lanak atzeratzen diren egun bakoitzeko 10.000 euro ordaindu beharko ditu.

Udala, enpresarekin haserre

Udal gobernu taldea haserre agertu zen enpresa eraikitzailearekin. “Ez dira leialak izan Usurbilgo herriarekin. Ezin liteke jokatu nahieran administrazio publikoarekin”, udal gobernu taldetik azken udalbatzarrean salatu zuten.

EAJ-PNV:

“Kudeaketa eredu gaitzesten dugu”

Udalbatzan Zumarteri lotuta proposatu ziren bi erabakion aurka agertu zen EAJ. Gai honekiko kudeaketa txarra eta onartezina egotzi zioten udal gobernu taldeari, irakurri zuten oharraren bidez.

Bi aldeek hitzartu zuten itunean enpresarentzako penalizazio gogorrak iragarritzen direla eta lanen amaiera uztaileko ziurtzat jotzen dela baina “nolako ondorioekin?” galdetzen zuten EAJ-tik, obretako langileek lan-baldintzekiko kezka agertzearekin batera. Langileon “lan baldintzak ez dira garrantzitsuak?” galdetzen zuten. Baldintzokiko errespetua eskatu zuten. “Kudeaketa eredu gaitzesten du EAJ-k”, esanez kontra bozkatuko zutela iragarri zuten.

EAJ-ri erantzunez, langileen lan baldintzak errespetatuko direla ziurtatu zuten udal gobernu taldeak. “Inor ez da planteatzen ari langileen bizkar” gauzatzeko proiektua, zioen alkate Agurtzane Solaberrietak. Uztailaren 17ko epea betetzen ez bada, ohartarazi zuenez, “Usurbilgo herriari ordaindu beharko dio bere hitza ez betetzeagatik”. Proposamenon kontra bozkatzeko argudio falta egotzi zioten EAJ-ri.

Pentsiodunak: “Orain da kalera ateratzeko garaia, ez gero. Gero berandu izango da”

Pentsiodunek deituta, jende ugari batu zen eguerdi partean udaletxe aurrean. Etxean geratu ordez, kalera ateratzeko deia egin zuten. Orain dela borroka egiteko garaia.

Damaso Lizasok egin zituen bozeramaile lanak. Deialdiarekin bat egiteagatik eskerrak eman zizkien bertaratu zirenei. “Egin ezin litekeena da etxean egon eta ai, ez didate ezer ematen eta... Nahiago ez baliete ezer emango! Zertarako daude etxean?”. Boz altuan hitz egin zuen. Megafonoaren beharrik gabe. Plaza zabala izanik ere, edonork entzuteko boza baitu Lizasok. Pentsiodunekin batera, gazteak eta helduak batu ziren elkarretaratzean. Gazteengan ipini zuen arreta Lizasok: “gurea eginda dago. Guk ahal dugun artean bizi eta kito. Baina gazteak ez bazarete mugitzen, gero egingo duzue negar asko eta alper-alperrik”.

Errazena da taberna aurrean egotea. “Hori denoi gustatzen zaigu”, esan zuen Lizasok. Beraien ez dutela bizimodu erraza izan gogorarazi zuen. Publi-



Usurbilgo pentsiodunek greba egunean deituriko elkarretaratzean jende asko batu zen.

DAMASO LIZASO

“Gurea eginda dago. Baina gazteak ez bazarete mugitzen, gero egingo duzue negar asko eta alper-alperrik”

kotik etorri zitzaion erantzuna: gazteak goizean goizetik zebiltzala grebarako deia zabal-tzen.

Bere azalpenarekin jarraitu zuen Damaso Lizasok, orain gutxi arte Gure Pakea elkar-teko presidente izandakoak. Lortu dutena lortzeko, bizitza osoan borroka asko egin behar

izan dutela azaldu zuen. “Egurrarekin jota ere, atera egiten ginen. Eta orain, bake-bakean utzi eta hala ere, ezin zarete etorri. Etorri! Orain da garaia, ez gero. Gero berandu izango da”. Elkarretaratzean bertaratutakoen artean, emakumezko batek eten zuen Lizasoren hitzaldia: “etorrita ere, errietan ari zara-eta!”. Ateraldiak plazan bildutako guztien barre algarra eragin zuen.

Erresidentziaren beharra

Manu Aranburuk erresidentziaren gaia gogorarazi zion Damaso Lizasori. “Martxoaren erdialdean hasiko dira egiten”,

aurreratu zuen Lizasok. “Hori ez egitetik egiten hastera bada-kizue zer diferentzia dagoen? Ba mundu batean bizi edo bestean bizi”.

“Etxetik atera”

Hitzaldia amaitu aurretik, kalera ateratzeko deia berretsi zuen. “Etxetik atera”, ohar-tarazi zuen Damaso Lizasok. “Bestela (Gure Pakeako) juntak ez du batere balio. Juntak bakarrik ez du ezer egingo. Beno ba, errietan gehiago ezin naiz ariko orduan! Eskerrik asko denoi”, txalo eta algarra artean amaitu zen pentsiodunen elkarretaratzea.

Protesta Urbilen



Eskualdeko hainbat herritar batu zen greba egunez ateko ireki zituen Urbil merkatalgune atarian. Tentsio uleren bat bizi izan zen Ertzaintza bertaratu zenean. Identifikaturik izan zen manifestarien artean.

Eskualdeko manifestazio historikoa



Urtarrilaren 30eko greba, Hernanin egindako eskualde mailako aspaldiko urteotako manifestazio jendetsuenarekin borobildu zuten. Lan, pentsio eta bizi duinak izan arte mobilizazioa eta borroka direla bide bakarra goraipatu zuten.

Greba deialdiak jarraipen zabala izan zuen

Greba deialdiak oihartzun zabala izan zuen industriaguneetan. Hala ere, merkataritzan eta ostatueta izan zuen jarraipen handiena.

Greba egiteko egun seinatua iritsi zen. Urtarrilak 30. Igande goiz baten itxura zuen kaxkoak. Saltokiak eta tabernak itxita. Kaleak hutsik. Isiltasuna nagusi. Greba deialdia iragartzen zuen kotxe karabana iritsi zen arte. "Greba eguna, borroka eguna da!", entzuten zen megafoniatik behin eta berriz. Goizean goizetik industriaguneetan zehar ibili ziren. Iragarria zegoen bezala, 9:00ak aldera kiroldegira hurbildu ziren. Herritar gehiago batu ziren bertan. Autoetara itzuli eta Urbil aldera jo zuten. Etorri ziren bezala joan ziren. "Greba eguna, borroka eguna da!", gogoraraziz.

Industriaguneetan, ezohiko eguna

Ugaldea, Atallu, Zumartegi eta Osinalde industriaguneetan ez



Udal zerbitzu asko bezalaxe, kiroldegia ere itxita egon zen.

URTARRILAK 30

Igande goiz baten itxura zuen kaxkoak. Saltokiak eta tabernak itxita, kaleak hutsik. Isiltasuna nagusi. Greba deialdia iragartzen zuen kotxe karabana iritsi zen arte: "Greba eguna, borroka eguna da!"

zen ohiko lanegun bat izan. Mugimendu gutxi, trafikorik apenas.

Merkataritzan, greba nagusi

Hala ere, enpresa eta tailer batzuk lanean aritu ziren. Saltokietan eta tabernetan ordea, greba ia erabatekoa izan zen.

Udal zerbitzu ugari, itxita

Greba orokorrarekin bat egitea erabaki zuten, udaletxea itxita egon zen herritarrentzat. Berdin gertatu zen ondoko udal zerbitzuekin: Oiarde kiroldegia, Sutegi, Potxoenea eta Gizarte Zerbitzuak itxita egon ziren.

Garbitaniako langileek ere

greba egitea erabaki zuten. Etxeetan ez zen organikorik jaso; industria eta komertzioetan, ez errefusik ez organikorik.

Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartak deituriko greba egunean ez zen taxi busik izan. Artzabalgo eguneko arreta itxita egon zen eta etxez etxeko zerbitzuetako garbiketakoak ez ziren lanera joan. Arrate, Artzabal eta Santueneko jubilatuen elkarteek ere greba egin zuten (azken honetan zerbitzu minimoak ezarri zituzten). Usurbilgo Lanbide Hastapenean ez zen eskolarik izan eta Zirimara aisialdi taldeko hezitzaileek ere bat egin zuten lanuztearekin.

Anbulatorioa zabalik egon zen

Eusko Jaurlaritzak aurreko greba deialdietako gutxieneko zerbitzuak finkatu zituen urtarrilaren 30erako: %30 garraio zerbitzuetan, ospitaleetan jai egunetako zerbitzua eta anbulatorioetan larunbatetako ordutegia, besteak beste.



Greba deialdiak oihartzun handia izan zuen Usurbilen. Anbulatorioa zabalik egon zen.

Euskaraldiaren bigarren edizioak Usurbilgo zenbait entitate batu ditu dagoeneko

2018 urte bukaeran, hizkuntza-ohituren aldaketan, pauso garrantzitsuak eman ziren "Euskaraldia: 11 egun euskaraz" ekimenaren baitan. Aurtengo bigarren edizioan, urrats berriak emango dituzte, eta norbanakoez ez ezik, entitateek ere neurriak hartuko dituzte hizkuntza-praktika berriak bultzatzeko. Usurbilen jada 13 entitatek hartu dute konpromisoa Euskaraldiarekin: Santueneko Gure Elkarteak tabernak, Santueneko Zaharren Egoitzak, Usurbilgo Lanbide Eskolak, Kabieneak, Orbeldi dantza taldeak, Fagor Automazionek, Saizar Sagardotegiak, Usurbil Kirol Elkarteak, Usurbil Futbol Taldeak, Aitzaga tabernak, Natalik, Amenabar farmaziak eta Alkartasuna Usurbilgo Baserri-tarren Kooperatibak.

Mota guztietako entitateek har dezakete parte: erakunde publikoek, gizarte eragileek, enpresek, kooperatibek, kultur eta kirol taldeek, etab.; tokian tokikoek, eskualde mailakoek, lurralde batekoek zein Euskal Herri osokoek.

Parte hartu nahi duten entitateek edo informazio gehiago es-



Parte hartu nahi duten entitateek edo informazio gehiago eskuratu nahi dutenek Euskaraldia batzordearekin jarri behar dute harremanetan usurbil@euskaraldia.eus helbidean edo 943 37 19 99 zenbakira deituz.

EUSKARALDIA

"Mota guztietako entitateek har dezakete parte: erakunde publikoek, gizarte eragileek, enpresek, kooperatibek, kultur eta kirol taldeek..."

kuratu nahi dutenek Euskaraldia batzordearekin jarri behar dute harremanetan usurbil@euskaraldia.eus helbidean edo 943 37 19 99 zenbakira deituz.

Lehen edizioan egin moduan, Belarriprestei eta Ahobiziei

proposatuko die, 15 egunetan, euren egunerokoan egin dezaten ariketa; baina horrez gain, euskaraz mintzatzeko gai diren hiztun-taldeak identifikatu beharko dituzte entitateek: Ariguneak. Horrela, taldean ere hizkuntza-ohiturak euskararen mesedetan aldatzeko ariketa egin ahal izango dute.

Aurkezle-sarea osatzen

Aurkezle-sarea osatzen ari da Euskaraldia batzordea, entitatei Euskaraldiko funtzionamendua azaltzeko. Norberak erabakiko du zein entitateri

aurkeztu nahi dion: lan egiten duen enpresari, irakasle edo guraso diren ikastetxeari, bazkide diren elkarteari, kafea hartzen duten tabernari, erosketak egiten dituzten dendari, afiliatua dauden sindikatu edo alderdi politikoari...

Aurkezle-sarean izena ematen dutenek laguntza eta materiala jasoko dituzte aurkezpenak egiteko, eta beharrezkoa izanez gero, formazioa ere bai. Izena emateko usurbil@euskaraldia.eus helbidera mezua bidali edo 943 37 19 99 zenbakira deitu beharko da.

Dantza batean datorkigu Inauteri Festa

Zubietak abiatuko ditu Inauterietako ospakizunak, otsailaren 15ean Lasarte-Oriarekin senidetuko duten Euskal Inauterietan. Astebete beranduago ikastetxeen txanda eta Usurbilgo Inauteri Festa. Aurten dantzaren bueltan ospatuko dugu mozerro festa.

Inauteriak 2020

Otsailak 15, larunbata

■ 16:30 Zubietako plazan ekitaldia. Ondoren, Zubietatik Okendora kalejira.

■ 17:00 Desfilearen hasiera: kalejira Lasarten barrena.

■ 19:00 Senidetzea, dantza eta suaren ekitaldia.

■ Amaitzeko, txokolate jana Okendo plazan.

Oharra: eguraldi txarrarekin, festa 17:30etan Oriarten.

Otsailak 21, ostirala

Egunean zehar, inauteri festak Udarregin, Aginaga eta Zubietako Eskoletan.

Usurbilen:

■ 19:15 Luzaideko konpartsa-

ren kalejira.

■ 20:15 Luzaideko Bolantak frontoian.

Otsailak 22, larunbata: Inauteri Festa Usurbilen

■ 12:00 Familia plana Zirimarako kideekin, Mikel Laboan.

■ 12:30 Kalejira Gaztelekuko herensugearekin, Burrunbazale txarangarekin. Azken dantza frontoian.

■ 16:00 Karaoke festa eta bingoa Gaztelekuan.

■ 18:30 Dj ibiltaria Aztarrika-

ren karrozarekin, Mikel Laboa plazatik abiatuta.

■ 20:00 Aztarrikaren eskutik performantzia frontoian.

■ 00:00 Dantza festa Inorkinak eta Kilimak taldeekin.

Elkarlanean: NOAUA!, Udala, Orbeldi, Zirimara, Gaztelekua, Aztarrika Gazte Asanblada.

Santa Ageda

Otsailaren 4an antolatutako zituzten bezperako ospakizunak. Hurrengo astekarian bilduko ditugu irudiak.

Usurbilgo Txosna Batzordeari Xauxar izena jarri diote

Herri mailan bideratu duten parte hartze prozesuak bere emaitza izan du. Jarri diote izena Usurbilgo Txosna Batzordeari; Xauxar! Aurreko asteburuan aurkeztu zuten jaietako txosnagune izan ohi den Mikel Laboa plazan.

“Zuek erabaki moduan, hemendik aurrera, Usurbilgo Txosna Batzordearen izena Xauxar izango da! Xauxar Txosna Batzordea bezala definituko gara hemendik aurrera”, hala iragarri zuten aipatu bilguneko kideek urtarrilaren 31n Mikel Laboa plazan egindako aurkezpen ekitaldian. Kokalekua apropos aukeratu zuten noski; festetako txosnagunea hautatu zuten, jaietako antolatzaileon taldeak izango duen izen propioa aurkezteko. Aipatu animaliak irudikatzen duen logoa ere plazaratu dute.

Izenak proposatzeko aukera zabalik egon zen

Abendu amaieran abiarazitako hilabeteko prozesua borobildu dute modu honetan. Aitzagan, Txiribogan, Txirristran eta Zendoian izenak proposatzeko kaxa bana kokatu zuten lehenik, nahi zuenak izen bat proposa zezan. Urtarrila erdialdera, ekarpenotatik lau izen sare sozialetan zabaltzeko eta gustukoena hautatzeko aukera eskaini zuten. Argia zen, proposatu ziren izenen artean zein izan zen gustukoena. Hemen dituzue izenak eta bakoitzak jasotako babesa:

■ Zertzeta (%3,4).



Urteak joan eta gauzak aldatzen joan arren, “Txosna Batzordeak jaietako gazte izaera edo helburua beti bermatu du”. Eta kolektiboari “izaera bat emateko beharra sentitu genuen”.

TXOSNA BATZORDEA

“Zuen laguntza ezinbestekoa izan da urteetan zehar sortu dugun kolektibo honi izen bat ezartzeko! Beraz, eskerrik asko parte hartu duzuen guztioi”

■ Ziztada (%31).

■ Goiztiri (%6,9).

■ Xauxar (%58,6).

“Orain arteko bidea oso aberatsa izan da”

Herriak erabaki du; honenbestez, Xauxar izango da Usurbilgo Txosna Batzordeak aurrerantzean izango duen izena. “Zuen laguntza ezinbestekoa izan da urteetan zehar sortu dugun kolektibo honi izen bat ezartzeko! Beraz, eskerrik asko parte hartu duzuen guztioi”, adieraziz hasi zuten Txosna Batzordeak hilaren

31ko aurkezpen ekitaldia. Astetotan indarrean izan duten prozesua ez dela ez abiapuntu ez ezeren amaiera adierazi zuten, “gazteok Santixabeletan izan dugun paperaren bilakaeraren beste pauso bat baizik. Modu batera edo bestera, denok parte hartu dugu herriko jaietan gazteentzako esparru bat sortzen eta mantentzen, auzolanez antolatutako jai herrikoietan gure beharrei erantzuteko eremuari forma emanaz”.

Prozesu honen guztiaren irudi bilduma bat erakutsi zuten; aurreko urteetako jaietan gazte belaunaldi ezberdinek eginiko ekarpena eta bilakaera. “Aldaketen artean ikus daiteke adibidez, txosnagunearen kokagunearen aldaketa eta baita ere lanketa feminista”. Kokagune aldaketak Txosna Batzordearen esanetan “gazteen festak eta izaera gaztea jaien erdigunean jartzea”

ekarri du. Jai parekideen aldeko lanketa feministari dagokionez ziotenez, “asko ari gara lortzen nahiz eta oraindik egiteko lanketa handia izan”. Argi dute, “orain arteko bidea oso aberatsa izan da”.

Urteak joan eta gauzak aldatzen joan arren, “Txosna Batzordeak jaietako gazte izaera edo helburua beti bermatu du”. Eta kolektiboan bilakatu dela nabarmentzen dute. Kolektiboari “izaera bat emateko beharra sentitu genuen”. Bilguneari izen bat jartzekoa, “jendeak ulertu dezan beste ekimen batzuk daudela herrian eta Txosna Batzordea horietako bat dela”. Erronka bete dute; Xauxar du izena Usurbilgo Txosna Batzordeak.

Xauxar sare sozialetan:

■ Facebook: Xauxar Txosna Batzordea

■ Twitter: @xauxarTB

Usurbilgo jaiak prestatzen hasteko lehen bilera

Herriko festak antolatzen hasteko unea heldu da. Otsailaren 12rako finkatu da Jai Batzor-

dearen lehen bilera, arratsaldeko 18:00etan Potxoenean. Bilkura irekia izango da, festen

prestateta lanetan parte hartu nahi duen norbanako nahiz eragileei zuzendua. 2020ko

Usurbilgo jaietarako proposamenik duenak bilgune honetan du aurkezteko aukera.

GuraSOS: “Ingurumen Baimen Bateratua ez betetzeak erraustegiaren proiektua erreka jotzera eraman dezake”

Zubietako erraustegiaren eraikitze lanak guztiz amaitzeke egon eta beharrezko baimenak bete gabe, probaldi fasean izan eta laster martxan jarri nahian dabiltzala salatu zuen joan den astean GuraSOSek, hedabideen alde-tik ikusmina piztu zuen Donostiako Koldo Mitxelena Kulturune-ko agerraldian. GuraSOSeko kide Joseba Belaustegirekin batera, ama eta haur talde batek parte hartu zuen agerraldian. “Kontuz ama naiz” kanpaina aurkeztu zuten, gai honetan ematen ari diren arau haustek salatzearekin batera.

“Ingurumen Baimen Bateria (IBB) ez betetzeak Zubietako erraustegiaren proiektua erreka jotzera eraman dezake”, ohartarazi zuen GuraSOSek.

Aipatu ingurumen baimena ez betetzeagatik Zubietako erraustegia geratzeko eskaria egina dio GuraSOSek Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Sailburuordetzari. Ebazpena jasotzekotan dira. “IBB iraungita dago eta Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Sailburuordetzak datozen egunotan hala aitortuko duela” espero du GuraSOSek.

Iraungiak dauden baimenak

Denboran atzera egin zuen GuraSOSek plazaratu duen salaketa argitzeko. Erraustegiaren probaldi fasea luzatzen ari den arren, izatez, iazko apirilaren



GuraSOSek plazaratu dituen gertaerak ez dira bakarrak, gehiagoren berri ematekoak dira laster.

GURASOS

“Ingurumen Baimen Bateratua eta Ingurumen Inpaktuaren Adierazpena iraungiak daude”

24an hasi eta abenduaren 9an amaitu behar zuen GuraSOSen esanetan, Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Sailburuordetzak apirilaren 23an ebazpena kaleratu ostetik, gehienez 7 hilabete eta erdiko tartea finkatu baitzen horretarako. “Horrenbestez, Ingurumen Baimen Bateratua eta Ingurumen Inpaktuaren Adierazpena iraungiak daude”.

Enpresa eraikitzaileek osaturiko “Ekohondakin” esleipendun taldeak Gipuzkoako Hondakinen Kontsorzioak Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Sailari probaldi fasea etetea eskatzea galdegiten zion iazko irailaren 29an “edo bes-

tela, proiektua haizea hartzera zihoan Ingurumen Baimen Bateratua iraungitzeagatik”.

Horregatik dio GuraSOSek, jada Jaurlaritzaren Ingurumen Sailak aipatu bi baimen eta adierazpena baliogabetu beharko lituzkeela, iraungita daudelako eta “hortik eratorriko liriteke erraustegia abian jartzeko ezintasuna eta ustiapen kontratua hutsaltzea”.

GHK-k esandakoa, “dobleki faltsua”

“Ondorio horiek saihesteko”, GuraSOSek azaldu duenez, “Urbaser kontzesiodunari obeditu zion eta Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Sailari probaldia etetea eskatu zion” GHK-k. Urriaren 17an kalaturiko ebazpenarekin, “probak egiteko epearen aldi bateko etetea” ebatzi zuen Ingurumen Sailburuordetzak. Ebazpen horrek honela dio: “2019ko urriaren 2an igorritako idatziaren

bitartez, Gipuzkoako Hondakinen Kontsorzioak aditzera eman du energia-horniduran arazoak daudela -2019ko ekainaren 11tik hornidura elektrikorik gabe daude transformagailu nagusiaren lehen energizazio fasean gertaturiko akats baten ondorioz- TMB eta PVEren instalazioen ekipoi egoztekoak ez direnak, eta probak beroan hastea eragozteak dietenak (...) eta probaldiaren aldi baterako etendura eskatzen dute arazo horiek konpondu eta konponduak daudela egiaztatzen duten proba teknikoak egin arte”. Ebazpen horretan GHK-k esandakoa “dobleki da faltsua” GuraSOSentzat. “GHKk baze- kien hornidura elektrikoaren arazoa etendura eskaria baino lehenago konpondu zela, hala aitortzen baitio kontzesiodunak irailaren 27ko eskarian. Garai hartarako energizazio prozesua jada osoa zen, eta hala egiaztatzen duten proba teknikoak eginak ziren. Zehazki, TÜV Rheinland-eko aditu bat irailaren 14an heldu zen instalazioetara, eta gomendio batzuk proposatu zituen, irailaren 20an gauzatu zirenak”.

GuraSOSentzat, “honek guztiak aditzera ematen du gezur horrekin kontzesiodunaren epeen ez-betetzea zuritu nahi zutela”. Bestela, GuraSOSen esanetan, “penalizazioak ordaindu beharrean izango zelako hura”.

“Probaldi faseko lanen etenaldia itxurazkoa baino ez da izan”

GuraSOSek salatu duenez, Ingurumen Sailburuordetzak urriaren 17an erabakitako probaldiaren etenaldia bertan behera utzi zuen azaroaren 26ko ebazpenarekin. GHK-k arazoak konpondu direla adierazten du baina “berriz ere ge-

zurra esan” ziola salatzen du GuraSOSek, “zeren hori jada gertatzen zen etendura eskatu zuenean”.

Laburbilduz, Jaurlaritzak ebatzitako Zubietako erraustegiko probaldi faseko lanen etenaldia “itxurazkoa baino ez

zela” izan dio GuraSOSek.

GuraSOSen eskaerak

Egoera honen aurrean, Ingurumen Baimen Bateratuaren iraungitzea adierazi dezala eskatzen dio Ingurumen Sailari, probaldi fasea behin behinean

etetea “iraungitze espedientea izapidetu arte”, eta “espedientea irekitzeko GHKri adierazitako faltsukeriengatik”. Horrekin batera, larritzat jotzen duten arazo honen inguruko jarraipena egitea galdegiten dio Eusko Legebiltzarrari.

Erraustegiaren transformadorea baimenik gabe eraiki eta piztu zutela salatu du GuraSOsek

Ekainaren 11n Zubietako erraustegian izandako istripu baten berri zehatza eman zuen GuraSOsek agerraldi berean. Istripu hitza baliatu zuen guraso taldeak gertaera hura deskribatzerakoan, Gipuzkoako Hondakinen Kontsultazioak berak agiri bidez guraso taldeari hala aitortu baitio: istripua gertatu zela Zubietako erraustegian, langileak bazkalzen ari ziren artean.

Gertaera hari buruz, gerora GHK-k “matxura” edo “arazoren” bat egon dela onartu izan du publikoki, baina “istripua” jazo zela ukatuta beti. Aldiz, GuraSOsek gertaera honi buruz eskatutako argibideen aurrean GHKtik jasotako erantzunean “onartzen da ofizialki lehenbiziko aldiz “istripu” bat gertatu zela, nahiz eta eran-



GuraSOseko kide Joseba Belaustegirekin batera, ama eta haur talde batek “Kontuz ama naiz” kanpaina aurkeztu zuten.

GURASOS

Gertaturikoa jendarteari ezkutatu eta GHKk ez duela diziplina-neurririk hartu salatu du

tzunak saihesten duen transformadorearen leherketaz hitz egitea. Era berean baieztatzen

da “tiro” bat gertatu zela eta “distiraldi” bat, eta aitortzen da transformagailuaren instalaturak kalteak izan zituela”.

Baimenik gabe eraikia eta martxan

GuraSOsek ohartarazi duenez, GHK-k “istripua zein legez kontrako zirkunstantzia larrietan gertatu zen” ezkututzen

jarraitzen du. Baina haratago joan da guraso taldea. Eskuar-tean dituen datuen arabera, Eusko Jaurlaritzaren Industria Sailaren beharrezko baimenik gabe eraiki eta martxan jarri zuten aipatu transformadorea. GuraSOsek zehaztu duenez, ekainean matxuratutako transformadorean eraikuntza abuztuaren 13an onartu zuen Industria Sailak. “Baina ordurako eraikia ez ezik, klandestinoki probatua ere bazegoen delako emaitza malapartatu horrekin”, GuraSOsen esanetan.

GuraSOsek GHKri gertaturikoa jendarteari ezkutatu eta “irregulartasun larri horiek gorabehera, GHKk ez du diziplina-neurririk hartu” salatu du. Eskandalagarritzat jo eta plazaratu dituzten gertaerak ez dira bakarrik, gehiagoren berri ematekoak dira laster.

“Ez dugu onartuko baldintza hauetan erraustegia martxan jartzea”

Haserrea eta kezka adierazi zuen GuraSOsen joan den aste-ko agerraldian parte hartu zuen Zubietako eta Usurbilgo ama eta haur taldeak. Zubietako erraustegiari lotutako azken gorabeherak entzunda, onartezintzat jotzen dute baldintza hauetan aipatu azpiegitura piztea. Agintariei eta auzitegiei neurriak hartzea eskatzen diete.

Argi zioen GuraSOsen agerraldian zehar hitza hartu duen ametako batek, Lide Arriagak. “Gure eta batez ere gure seme-alaben osasunarengatik kezkatuak gaudelako gategoz hona, hau dena jakin eta gero, iruzur eta eskandalo hauen guztien aurrean esatera ez dugula onartuko Zubietako erraustegia baldintza hauetan martxan jartzea”.

Arriskutsutzat jo zuen jardueraren izango dela gogorazita,

argi utzi nahi izan zuten, “bada-kigu osasunarentzako kaltegarria dela eta gure seme-alaben osasuna bermatzearen arduradunak gu gara”. GuraSOsek plazaratu zituen datuen aurrean Arriagak adierazi zuenez, “agintariei eta auzitegiei neurriak hartzeko eskatzen diegu. Eskandalu honen guztiaren aurrean neurriak har ditzaketen auzitegiak badaude eta politikariei eskatzen diegu gai hauek politikoki lantzeko beraien agendetan”. Azken deia herritarrentzat. “Mugitu egin behar gara bai edo bai, ezin diegula gainetik pasatzen utzi eta gutxiago gure txiki hauen gainetik”.

“Kontuz, ama naiz!”

Kanpaina berri bat plazaratzeko baliatu zuen GuraSOsek iragan asteko agerraldia; azken egunotan sare sozialen bidez iragar-

tzen joan diren “Kontuz, ama naiz!” ekimena. Hiru ardatz nagusi izango ditu GuraSOsek zehaztu duenez. Mobilizazioen bidea jorratuko du, arlo juridikoan eta diplomazian lan egingo du. “Guretzat beti adostasuna izango da lehenetsi beharreko bidea. Gatazka hau hitz eginez konpondu behar da eta gu bide hori irekitzen saiatuko gara”, gogorarazi zuen Joseba Belaustegik.

Erraustegia kaltegarria ez dela guztiz bermatu arte eta “haren funtzionamenduaren gaineko kontrol demokratikoa egon arte”, erraustegia piztera eragoztera dator “Kontuz, ama naiz!” kanpaina. Datozen asteetan ekimen juridiko berriak emango dituela ezagutzera iragarri du GuraSOsek. Bide batez, gogorarazi du ebazteke daudela baita lehendik abiarazitako bes-

te zenbati ekimen juridiko; batetik, EAEko Auzitegi Nagusian Ingurumen Baimen Beteratuaren (IBB) aurka irekitako administrazioarekiko auzia. “Kausa horretan 2016an gertaturiko IBB-aren bigarren iraungitze kausa ebatzi behar da”, zehaztu du GuraSOsek. Epaia hilabeteotan emango da ezagutzera. Bestalde, “ebatzi gabe dago oraindik Europako Batzordean jarritako kexa, izaipidetzeko onartu zena”.

“Zero tolerantzia”

Herritarrentzat GuraSOsetik azken mezua; “hau onartezina da. Herritarrok altxa eta aski dela esateko garaia da”. Gizarteari, ustelkeriarekiko eta ingurumenaren hondamendiarekiko “zero tolerantzia” mezua plazaratzera deitu du GuraSOsek.


Herri osoak ikus zaitzala nabi duzu?

IPINI ZURE IRAGARKIA HEMEN


Kontsulta itzazu tarifak
www.noaua.eus helbidean edota
deitu 943 36 03 21 zenbakira

noaua


Usurbilen,
zure auto-tailerra



Eceta Barro



Atallu
AUTOAK



Motorra
Balaztak
Mekanika
Esekidurak
IAT-aurrekoa
Pneumatikoak
Ihes Kanalizazioak
Injekzio Elektronikoa
Berehalako Zerbitzua

DOHA INIK

EuroTaller

Atallu Industrialdea, Oria kalea 4 / Usurbil 20170 / 943 37 74 78 / atalluautoak@gmail.com

BAZKIDEEN TXOKOA



Otsailaren 7an ZOZKETATUKO dugu:

**IRUIN
SAGARDOTEGIAN**

2 LAGUNENTZAKO
afari edo bazkaria

NOAUAREKIN
TXOTXI!

noaua! euskararen aterpe

Bazkide egiten bazara zozketa hauetan parte hartzeko aukera 943 360 321 / elkarte@noaua.eus



Alazne Arruti Bengoetxea

Semaforo gorri

Sare sozialetan bada, kalean entzundako esaldi anonimoak zabalduaz ezagun egin den profil bat. "La gente anda diciendo" izenpeko orrialdean, baten batek inguruan hegaldaturiko esaldiak gatibatzen ditu, testuinguruaren zantzu ttipiak emanez, pilula gazi-gozen forman eskaintzeko. Hona adibide bat:

"Bizitza lerro zuzen baten antzerkoa da. Diagonaletik joan zaitezke eta azkarrago heldu, baina jendea mintzen duzu gurutzatu nahian. Beraz, zuzen, guztiz zuzen..." 70 urte inguruko gizon bat, adin bereko beste bi gizoni. Balcarce e Hipólito Irigoyen, Caba, Asteazkena, 11:30ak"

Eta saiatzen naiz irudikatzen, hirukote hura. Argentinako Maiatzeko plazatik gertu, zuhaitzez inguraturiko bankuren batean eseri eta euren azal zartatuen esperientziatik berriketan. Eta orduan, alkandora zabal, mahoizko lepondo eta zapela dotore haien eta nire bidearen norabidea, hitz hauengatik ez balitz, ez litzatekeela sekula gurutzatuko pentsatzen dut.

Gustura jakingo nuke, hitz horiexek sakelakoan irakurtzen jarduteagatik, nire inguruan gertatutako zenbat gauza galdu ote ditudan. Baina ozeanoaz bestalde gertatzen dena alboratu eta hona bertaratzeko ahaleginak egin



"Lehen denbora gehiago eskaintzen nion inguruari erreparatzen".

Argazkia: @robin_rednine

ALAZNE ARRUTI

"Gustura jakingo nuke, hitz horiexek sakelakoan irakurtzen jarduteagatik, nire inguruan gertatutako zenbat gauza galdu ote ditudan"

arren, ez dut erantzunik topatzen.

Lehen denbora gehiago eskaintzen nion inguruari erreparatzen. Egunerokotasuna mantsoago pertzibitzen nuela esango nuke. Garraio publiko erabiltzean, ondoko bidaidearekin elkarriketa bat edo beste sortu eta eraikitzeko gai nintzen, asperdura ekiditeko bestelako gauzarik behar izan gabe. Liburu gehiago irakurtzen nituen akaso, eta beti soinean eraman ohi nuen koadernotxo ere gehiagotan erabiltzen nuen. Baina baita

maiz zabaldu bezain pronto itxi ere, ondoko eserlekua bete eta bidaiia laburtu zezakeen elkarriketaren bati sortzeko aukera emanaz.

"Gogaitzen nauena zera da, jendeak ez duela hitz egiten. Kafe bat hartzera irteten dira eta ez dute txintik esaten, mugikorrarekin daude. Lehen pareko mahaikoekin hitz egiten zuten, edo harantzagokoekin... ezberdina zen".

50 urte inguruko emakume bat, 20 urte inguruko neska bati. 551 autobusa, Mar de Plata, astelehena"

Eta egia da, niri ere sarritan gertatu zait, pareko mahaikidea une batez komunera zutitu eta mahaiaren handitasunean galtzea. Eserlekuan lehengo komoditatez kokatu ezin eta begirada non iltzatu ezin asmatzea. Harik eta ohartzera, behatz noragabeok pantaila zurbil bati gora eta behera, es-

ker eta eskuin, inkontzienteki baino kontzienteegi, eragiten hasten diren arte.

"Une batzuetan, arrazoia baino, bakea izan nahi nuke" 45 urte inguruko gizon bat, 65 inguruko emakume bati. El Salvador y Godoy Cruz, Caba, Osteguna"

Baina haserretu egin ohi naiz. Kidea komuniketitzuli eta informazio zurrunbilotsu horren jariora berehalakoan eten ezinda eta kasik aurpegi begiratu ere egin gabe, une batez itzaroteko, berehala amaituko dudala eta barkatzeko esatera ausartu izan naizelako noizbait. Hil ala biziko uneren batean harrapatu dutenaren intentsitateaz, bide batez. Baina zer demontre, jarraian eskuartekoa poltsiko sakon eta ilunenean gordetzeak ezer konpontzen duelakoan hala?

"Arratsalde on guztioi, ongi etorri semaforo gorri" 30 urte inguruko kale artista bat, autoak semaforoaren aurrean gelditu berritan. Oroño y Rivadavia, Rosario, Santa Fe, asteazkena"

Beraz, urteko lehen hilabetea gainditu ostean, begirada fintzeko ahaleginetan nabil. Errepideko obren semaforoaren gorritasuna, ingurua erreparatzeko darabil. Leihoak zabaldu eta eguzki izpiei sar daitezten uzten diet. Eta oster, inguratzen gaituenarekiko zelatan nabil.

Alazne Arruti Bengoetxea

Ainhoa Azpiroz Eizmendi

Ugaitz Agirre Zapirain

Idoia Torregarai Martija

URDAINTZI S.L.
Eraikuntzak
649 43 54 75
943 36 72 64
IT-ak egiten dira
ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

Josue
Igeltseritza
606 37 21 05
Atallu pol.28 USURBIL

Uraitz, s.l.
Igeltseritza
Orokorra
693 059 392
uraitz@uraitz.com USURBIL

Inaki Iturgintza
BEROKUNTZA • GASA • AIRE EGOKITUA •
ZORU BERO-EMAILEA
ITURGINTZA • ENERGIA BERRITAGARRIAK
info@inakiiturgintza.com - www.inakiiturgintza.com
600 024 825

Wifi irekia jarri dute udal eraikin ezberdinetan

Wifi irekia jarri dute Sutegin, Potxoenean, udaletxean eta gizarte zerbitzuetan. Neurri berriak herritar guztiak interneterako sarbidea izatea ahalbidetuko du. Sutegi eta Potxoenean erabiltzaileak askotan eskatu izan dute; bilerak edo lanak egiteko ezinbesteko baliabidea da.

Udalak administrazio elektronikoen bideari heldu dio, eta wifia beharrezko bihurtu da egunerokoa: “Zinegotzi liberatuoi eta komunikazio ardura-dunari ordenagailu eramangarriak eskuratu zaizkie; horrela, papera murriztu eta lanaren eraginkortasuna hobetzea izan da helburua”, azaldu du Beñat Larrañaga zinegotziak. Arrakala elektronikoa murrizteko neurria ere izango da: “Baliabide hori etxean eduki ezin dutenei espazio publikoetan lan-tresna gisa eskaini nahi zaie, bai Sutegin ikasteko edo lanerako behar dutenentzako, bai Potxoenean bilerak edo bestelakoak egin behar dituztenentzako”, esan du zinegotziak.

Bi sare mota daude leku bakoitzean: irekia, edonork



Wifi irekia topatuko duzue Sutegin, Potxoenean, udaletxean eta gizarte zerbitzuetan. Argazkia: udala.eus

WIFI ZERBITZUA

“Sutegin wifia jarri badute ere, kable bidezko sistemak bere horretan jarraituko du”

eskuragarri izango duena gonbidatua izenarekin; eta itxia, udal-langileentzat gordetakoak. Irekian pasahitza jarri behar da: argibideak jarrita daude, eta bertako langileei galdetuta ere eskura daitezke. Orain arte, kable bidezko sarbidea eskaini izan da Sutegin, eta wifia jarri badute ere, kable bidezko sis-

temak bere horretan jarraituko du. Larrañagak azaldu duenez, datuen erabilerak muga bat izango du, giga batekoa erabiltzaile/eguneko. “Lan-tresna bezala ulertzen dugunez, kopuru hori nahikoa dela aurreikusi dugu; deskarga handiak edo masiboak egitea saihestu nahi dugu modu horretara”, azaldu du zinegotziak.

Probaldian

Proba fase bat ireki dute: erabiltzaileak arazorik antzeman-go balute, gaia berraztertzeo aukera dagoela nabarmendu du Larrañagak.

Potxoenean, beharrezko denean

Potxoenean wifiaren erabilera ere antzekoa izango da. Datuen muga berbera izango da, baina ez da etengabe piztuta egon-

go. Potxoenean, bilerak ez dira egunero egiten, eta horregatik, pizteko eta itzaltzeko botoia izango du: “Sotoko aretoan

dago, eta beharrezkoa denean bakarrik jarriko da martxan; gizarte zerbitzuetan ere, berdin”, azpimarratu du Larrañagak.

Ate irekien eguna Lanbide Eskolan

Lanbide Eskola barrutik eza-gutzeko aukera izango da hurrengo astean. Ate irekien eguna antolatu dute otsailaren 12an 18:00etan. “Zatoz gu ezagutzera!” luzatu dute gonbita. Informazio gehiagorako: lhusurbil.eus

Oriaren 26. Traineru Jaitsiera

Inauteri Festa egunez erria arraunerako lehiatokia izango dugu. Oriako 26. Traineru Jaitsiera ospatuko da Aginagatik Oriara otsailaren 22an, 16:00-18:00 artean. Antolakuntzak -Oriko Arraunketa Elkarteak- ohartarazi duenez, jada 55 ontzik eman dute izena eta inskripzio epeak zabalik segitzen du oraindik. “Proba honen helburu nagusia neguko prestaketak lantzen ari diren arraunlari eta elkarteek progresioa testatzeko aukera izatea da”. Parte hartze ahalik eta inklusiboena izatea, “guztiak parte hartzea da helburua: gizonetakoak eta emakumeetakoak, elkarte federatuak, traineru mistoak eta lagun artekoak, jubeniletatik hasita betaranoetaraino”. Proba bi modalitateetan jokatu da; 4 kilometrokoa Aginagako Sari-kolan hasi eta Orion amaituko da. 6.000 metrokoa Mapiletik Oriara jokatu da. “Elkar-te eta prestatzaile bakoitzak bere prestakuntzaren arabera osatu dezala ibilbide bat edo bestea”, luzatu dute gonbita antolatzaileek.

txirriStra
TABERNA

-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

BORDATXO
taberna

Pintxo Bereziak
943 37 10 42
Zubiaurrenea 5

ZENDOIA
ENE taberna
Kale Nagusia 35, Usurbil

Aitor Arangurenen debuta, eskuz binakako txapelketan

Aginagarra lehenbiziko aldiz eskuz binakako txapelketan lehiatuko da ostiralean (otsailak 7) Zestoan. Aimar Olaizolarekin batera jokatu du aipatu txapelketaren asteburuko jardunaldia.

Erik Jaka eta Jose Javier Zabaleta izango dituzte aurrez aurre. Aimar Olaizolaren lehiakide Mikel Urrutikoetxea ordezkatuko du Aitor Aranguren. Atzelariak eskuin eskuan arazoak ditu aurreko neurketa batean mindu ostean. Aranguren ariko da bere ordez.

Pilota partida ETB1 katea



Ostiral honetan, gaueko 22:00etan eskainiko dute partida ETB1 katean.

zuzenean eskaintzekoa da; aipatu moduan, otsailaren 7an ostirala, gaueko 22:00etan hasita.

Neurketa garrantzitsua,

Olaizola eta Urrutikoetxea eskuz binakako txapelketako seigarren postua eskuratu eta "play-off"etarako sailkatu nahian baitabilta.

Irisasi BTT-ren eskertza

Urtarrilaren 26an ospatu zen Irisasi BTT Hotzak Akabatzen probaren bederatzigarren edizio arrakastatsua ahalbideratu dutenei eskerrak helarazi eta kirol hitzorduaren inguruko balantze ezin gozoagoa plazaratu du antolakuntzak. "Zuen ezinbesteko laguntzari esker izan da posible hau guztia antolatzea", adierazi du Irisasi BTT taldeak. Pozarren agertu dira, zeharkaldiak izandako harrerarekin, parte hartze marka guztiak hautsi baititu. "600 lagun inguruk hartu zuten parte, inoizko parte hartzerik handiena", antolakuntzak nabarmendu duenez.

Pozik dira baita proba eguna



Edizio arrakastatsua ahalbideratu dutenei eskerrak helarazi nahi dizkiete.

nola ospatu zen ikusita. "Eguna bikain joan zen eta ibilbidean izan zen lokatz ugariak parte hartzaileak ongi nekarazi zituen. Baina orokorrean denek oso pozik bukatu zuten ibilbidea, amaieran hamaiketako eder batekin eta hainbat

opariren zozketarekin", antolatzaileen esanetan.

Balantzea beraz ezin gozoagoa, proba prestatu zutenentzat. "Parte hartzaileak orokorrean gustura eta antolatze lanetan aritu ginenok oso pozik izandako emaitzarekin".

Futbol partidak

Haranen

Otsailak 8, larunbata

■ 10:00 Alebin neskak:

Udarregi 5-Urnieta 5

Udarregi 6A-Urnieta 6

■ 11:15 Infantil mutilak:

Usurbil B-Internacional

■ 16:00 Erregionalak:

Usurbil F.T.-Mariño

Otsailak 9, igandea

■ 10:00 2010ean jaiotakoan

Futbol Eskolako topaketa:

Usurbil-Ostadar

Hernani-Ostadar

Eskubalo partidak

Oiardo kiroldegian

Otsailak 8, larunbata

Eskola Kirola

■ 9:30 Alebin mutilak:

Udarregi 5A-Urnieta 5A

■ 9:30 Alebin mutilak:

Udarregi 5B-Urnieta 5B

■ 11:00 Infantil neskak (G2 amaiera fasea):

Udarregi B

Usurbil-Aloña Mendi K.E B

■ 12:30 Infantil neskak (G2 amaiera fasea):

Udarregi A

Usurbil-CIMDE Elgoibar

Usurbil K.E.

■ 16:00 Kadete mutilak

(Diputazioko torneoa):

Usurbil K.E.-Herreria Bidebieta

Bera-Bera

■ 17:30 Jubenil mutilak

(Euskadiko Txapelketa):

Usurbil K.E.-Ereintza Aguaplast

■ 19:00 Senior neskak

(Euskadiko Txapelketa):

Urbil Usurbil K.E.-Construcciones

Ugarte Aloña Mendi

Gipuzkoako

Trinkete txapelketa

Otsailak 9 igandea

Eskuz binaka, Nagusiak 1. maila:

Iruran, 10:30ean

EPL- Pagazpe

www.noaua.eus
USURBILGO ATARIA

Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO

Patxi
bazkariak EGUNERO
afariak, ostegunetik larunbatera
© 943 362725 · © 688 690 361

ZALDIGAIN
ERREMENTARIA
• Burnia, inox, altzairua eta corten altzairuarekin lan egiten dugu.
• Barandilak, baiokiak, eskailera dekoratiboak, solairuarreak....
www.zaldigain.com • info@zaldigain.com
Tfno. 943593303 • Mugikorra: 677463867
Fax. 943300045

ETXEBIZITZA

Salgai

Etxebizitza salgai; 2 logela, egongela, sukalde handia, 2 balkoi, dena kanpo aldera begira. Komuna duela gutxi berritua. 56m². Lokala 22m², garaje bezala eta sapai txiki bat trastelektzat. Interesatuak 675 007 422.

Etxebizitza salgai Kalezarren: 79m² berritua, 2 gela, komuna, sukalde, jangela, egongela, harrera. Dena kanpoaldera. Ganbara handia partekatua. 35m² garajea aukeran. 686462705

Etxebizitza salgai Santuenean: 2 gela, sukalde handia, egongela, komuna, bi balkoi, egongela. Argitsua, dena kanpoaldera. Etxeko eta komunitateko obra guztiak eginak. Trasteleku pribatua portalean. 677471648

Etxebizitza egin daitekeen 61 metro karratuko lokala salgai Munalurran. Nahi izanez gero, lizentzia, proiektua eta etxebizitza egiteko aurrekontua eskuragarri. 943 916 182 (Jon)

Etxea salgai, Zubiaurrenean. 70 m². 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Balkoia trasteleku. Dena kanpora. Fatxada eta teilatua berritua. 688 779 465.

3 logela eta ganbarako etxebizitza salgai edo alokairuan Aginagan. Berritu berria, eguzkitsua eta lasaia. Tel. 650450869

Etxea erosi nahi dut Usurbilen. Kaxkotik gertu dagoen auzo batean. Gehienez 100.000 euro ordaintzeko prest. Tel. 666 770 851

Etxebizitza eta garajea salgai. Biak batera edo aparte. 3 logela, sukalde-egongela, 2 bainugela. Etxebizitza 78 m² eta garajeak 50m². Tel. 676 453 176.

Pisu bat salgai Kale Nagusian. 3 logela, sukalde, egongela eta

OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrek doakoak dira. Telefonoz edo emailaz helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

Oharrek bidaltzeko azken eguna: astelehena, eguerdiko 12:00ak. Atal bakoitzaren goikaldean ipiniko ditugu berrienak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

2 bainugela. Dena kanpoaldera. Ganbara prezio barruan. Prezioa: 205.000 euro. Tel. 629 631 838

Alokairuan

Etxe bat edo logela bat alokatu nahiko nuke Usurbil edo inguruan. Kontratu beharrezkoa. Gustura jasoko dut zure deia horretarako aukerarik baduzu. 633141060

Pisua alokatzen da Santuenean, berritua 2 logela 590 euro. Nomina eta fidantza eskatzen da, erreferentziak, txakurrik ez. 667438145.

Etxebizitza baten bila gabilta. Baserri bat zainduko genuke aukeran. Familia bat gara, bi seme ditugu eta euskaldunak gara. 630 335 561.

Marradun garaje bat alokairuan Bizkarre auzoan. 696 014 585

Alokairuko pisu baten bila gabilta. Bi neska gara, biak lanarekin, arduratsuak eta garbiak. 688893668

Alokairuko pisu baten bila nabil. Tel. 620 708 265 / 686 143 786.

Logela bat alokatuko nuke. Mutil langilea, serioa eta arduratsua. 651 197 381 / 632 138 393

MOTORRA

Salmenta,

garajeak

Santuenea auzoan trastero txiki

baten bila nabil. 626 735 354

Nissan Terrano 2 markako kotxea salgai. 943429682 / 637293471

Kale Nagusian garaje bat salgai. Ez da garaje itxita. Prezioa negoziagarria. 667336405.

Atxegalden garaje bat erosi edo alokairuan hartuko nuke. 653014518

Garaje itxi bat alokatzen da Errekatxiki kalean. Tel. 616 235 366.

Alokairuan 50m²-ko lokal/garaje bat Atxegalden. Autoak sartzeko atearekin. Goiko kalea 2. 676453176

Baju bat alokatzen da Munalurra, 4ean. Tel. 652 765 583

Garajea salgai Txaramunto kalean. 23 m², ate elektriko eta itxia. 615744628.

LANPOSTUAK

Lan eskaintzak

Game Masterra behar dugu Quantum Escape Room-en. Gaztea bazara, eta jokoak nahiz ihes gelak gustatzen bazaizkizu bidali CVinfo@quantum.eus helbidera

Usurbilgo neska edo mutil bat behar dugu, ingeleseko klase partikularrek emateko. 608201745

Txiribogan asteburuetarako langileak behar dira. Interesatuok hona deitu: 629 951 931.

Sukaldari laguntzaile bat behar dugu Lukainategi erretegi. 680 483 164

Zerbitzaria behar da Lasarteko taberna baterako. Interesatuak deitu telefono honetara: 607110365.

Finantza eta aseguruetakoko kudeatzailea behar da Buruntzaldean. Baldintzak: Esperientzia gabe aseguruetan, prestakuntza enpresaren kontura eta kotxearekin. Betebeharrak: profesio-naltasuna eta seriotasuna, lanbide-heziketa eta baldintza onekin. Tel. 699 760 873

Udarregi Ikastola partikularrek emateko prest dagoen jendearen zerrenda eguneratzen ari da. Partikularrek emateko prest egongo bazina, bidali mezu bat: gorputzaldiak@udarregi.eus

LANPOSTUAK

Lan eskaerak

Pertsona helduak eta haurrak zaintzeko edo garbiketan aritzeko lan bila nabil. Denbora osoz edo orduka. 602424658

Eraikuntzan, jardineritzan edo bestelako ofizioetan lan egingo nuke. Bizargin moduan aritzeko ere bai. 602424658

Laguntza soziosanitarioa behar baduzu ez izan zalantzarik ditzeko. Esperientzia zabala osasun eta zaintza alorrean. Kontxu 619827232

Orduka lan egingo nuke Usurbilen garbiketa lanetan zein zaintza lanetan. T689027247

Interna moduan lan bila nabil. esperientziaasko661091863

Adinekoak zaintzen zein garbiketa lanak egiten esperientziaduna. Disponibilitate osoa. Egoitza baimena ere badut. 645067560 Betza

Adinekoak zainduko nituzke. Esperientziaduna. 666097595.

Lan bila nabil. Adinekoak zaintzeko prest. 617016290.

Lan bila nabil asteburuetarako, adinekoak zaintzeko. 688712294

Lan bila nabilen gazte bat naiz. Garbiketan edo pertsona helduak zaintzen, arratsaldetan edo gauean. Tel. 633 159 088.

Lan bila nabil, garbiketan, orduka edo externa bezala. 633 148 710

Lan bila nabil, pertsona helduak zaintzeko, arratsaldetan edo gauean. 655 986 552

Lan bila nabil. Garbiketan edo pertsona helduak zaintzen. Segituan lanean hasteko moduan. 631 703 566

Lan bila nabil. Garbiketan edo pertsona helduak zaintzen. Segituan lanean hasteko moduan. 632 618 839

Lan bila dabilen mutil bat naiz. Pertsona helduak zaintzen edo garbiketan. Tel. 617 016 290

Lan bila nabil. Pertsona helduak edo umeak zaintzen, garbiketan, ostalaritzan edo plantxa egiten. 676 188 411

Lan bila nabil. 655 986 552

Mutil langilea naiz. Pisu baten bila nabil alokairuan altzaririk gabe. Soldatarekin. 666 108 164

Haur edo adinekoak zaintzeko emakume esperientzia handia duena eskeintzen da. Baita ere etxeko garbitasunerako. 602568090 / 658706345

Lan bila nabil. Helduak edo umeak zaintzen, edo garbiketan. Berehalan lanean hasiko nintzateke. 603 818 142

Lan bila nabil. Helduak edo umeak zaintzen, edo garbiketan.



Zorionak Haritz!

Otsailaren 8an 12 urte beteko dituzu. Muxu handi bat familiaren partez.



Zorionak Eire!

Muxu handi bat Peru, aita eta amaren partez.



Zorionak Araitx!! Otsailaren

6an urteak beteko dituzu. Segi beti bezain zoriontsu eta alai. Asko maite zaitugu.

Berehala lanean hasiko nintzateke. 648 271 757

Lan bila nabil. Helduak edo umeak zaintzen, edo garbiketari. Berehala lanean hasiko nintzateke. 617 016 397

Neska arduratsua lan bila nabil, umeak edo helduak zaintzeko edo garbiketari. 632 285 101

Lan bila nabil. Pertsona helduak edo umeak zaintzen. 632 264 187

Lan bila nabil. Pertsona helduak edo umeak zaintzen. 688 712 294

Ikastolatik atera ondoren umeak zaintzeko prest dagoen neska usurbildarra naiz; gaztea eta euskalduna. Edozer dela ere, deitu edo bidali whatsapp mezua bat lasai 688637679 zenbakira, Maddi.

Lan bila nabil. Margolari bezala lan egin dut, garbiketari lanetarako titulua dut, "catering"ean ere aritu izan naiz. 686 51 35 36.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. 631 864 292.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen, edo garbiketari lan egingo nuke. Tel. 617 748 714.

Lan bila dabilen neska arduratsua naiz, esperientziarekin. Umeak arratsalde zaintzeko prest. Maria 672340330

Pertsona heldu edo dependienteak zaindu edota etxeko garbiketari lanak egiteko prest. Soziosanitario titulua dut eta esperientziaduna. 686 825 587.

Ordukako lan baten bila nabil arratsaldeetarako, garbiketari eta haur edo helduen zaintza lanak egiteko. Berehala hasteko prest. Erreferentziak ditut. Esperientziaduna. 688 77 41 80.

Pertsona helduen zaintza lanak egiteko lan bila nabil. Berehala hasteko prest. Esperientziaduna eta erreferentziak ditut. 658 45 36 76.

Emakume arduratsua, garbiketari lanak eta haur zein helduak zaintzeko prest. 617 75 15 22

Emakume bat etxeko nahiz zaintza lanetan aritzeko prest. Esperientziaduna. 693000147

Lan bila dabilen neska bat naiz. Arduratsua eta esperientziarekin. Garbiketari lanak egiteko prest. 11:00-17:00 bitartean. Tel. 603 315 126

Lan egiteko prest dagoen neska bat naiz. Garbiketari, zahar edo haurren zaintza... Paperekin eta esperientziarekin. 618 350 804.

Lan egiteko prest dagoen neska bat naiz. Zahararak, haurrak, etxeko lanak... Esperientziarekin. 688 777 464.

Lan bila nabilen neska bat naiz. Tel 602 069 147

Lanean berehala hasteko prest. Neska jatorria, arduratsua eta langilea. 604166831.

Lan bila nabil. Garbiketari, pertsona helduak edo umeak zaintzen. Berehala lanean hasiko

nintzateke. 632 140 789.

Lan bila dabilen neska arduratsua naiz, esperientziarekin. Berehala lanean hasiko nintzateke. 637 106 649.

Lan bila dabilen mutil bat naiz, esperientzia ere erreferentziarekin pertsona helduak zaintzen. Ospitaleetan, paseatzeko eta pozik edukitzeko prest nago. Berehala lanean hasiko nintzateke. 603 595 656

Emakume arduratsua naiz, eta lan egingo nuke, pertsona helduak zaintzen edo etxeko lanak egiten. 663 488 438

Garbiketari lanetan edo pertso-

na helduak zaintzen lan egingo nuke. 617 064 054

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo lukeen neska bat naiz. Esperientziarekin. 663 443 736

Lan bila nabil. Pertsona helduak edo umeak zaintzen. 619 355 819

BESTELAKOAK

Isabelita Mandarinina Japoniarriak (txoriak) ditut salgai. T659185107

Ingelesarekin laguntzeko, Usurbilgo pertsona baten bila nabil, DBH 1ean ikasten ari den nire alabarentzat. 627 18 46 74

AMC markako eltxe bat daukat salgai. Oso ondo dago 943363201

Matxaka; sagarra txikitzeko tresna daukagu salgai. Itziar 637974994.

Baserriko kalabazak salgai. 605 783 227.

Estilo guztietako txirikordak (trenza) egiten dira. 658706345, 60256809.

Andatzpe Elkartean bazkide berriak sartzeko plaza libreak daude. Edozein zalantza argitzeko 669 205 896 (Aitor).

Andatzpe elkarteko bazkidea naiz, plaza saldu nahiko nuke. 699 421 238 Iñigo.

Ohe artikulatua salgai. 1'35 neurrikoa da eta berri berria dago. 650 027 123.

TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, patinetak, liburak... Atalluko Garbigunean, doan hartu daitetzke. Astelehenerik ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00.

Telefono interesgarriak

| | | | |
|-----------------------------------|-------------|---|-------------|
| Udala..... | 943 371 951 | Abere-Landare Babeslea..... | 943 376 650 |
| Atez ateko bulegoa..... | 900 776 776 | Taxia (Angel)..... | 607 928 770 |
| Udalzaingoa..... | 943 361 112 | Taxia (Joxe Kruz, 8 plaza)..... | 677 373 466 |
| Udal zerbitzuak (Brigada)..... | 943 370 148 | Eusko Tren..... | 943 470 976 |
| Sexu Aholkularitza Gunea..... | 697 919 516 | LurraldeBus..... | 943 000 117 |
| Gizarte Zerbitzuak..... | 943 377 110 | Korreos - posta zerbitzua..... | 943 362 894 |
| Diputazioa - Basetxea..... | 943 361 215 | Anbulategia..... | 943 362 013 |
| Bake Epaitegia..... | 943 372 336 | Amenabar botika (lehen Oa)..... | 943 376 076 |
| Udarregi Ikastola..... | 943 361 216 | Iturralde botika..... | 943 363 395 |
| Haur Eskola..... | 943 374 061 | DYA..... | 943 464 622 |
| Zubietako Lanbide Eskola..... | 943 364 600 | Gurutze Gorria..... | 943 272 222 |
| Zubietako Herri Batzarra..... | 943 372 077 | Emergentziak..... | 112 |
| Hastapen tailerrak..... | 943 360 465 | Genero-indarkeria, arreta...900 840 111 / 016 | |
| KZgunea..... | 943 023 684 | Gonzalez Ehorztetxea..... | 943 362 163 |
| Oiarde Kiroldegia..... | 943 372 498 | Kutxabank..... | 943 361 202 |
| Sutegi Udal Liburutegia..... | 943 360 692 | Euskadiko Kutxa-Laborala..... | 943 364 740 |
| Zumarte Musika Eskola..... | 943 371 594 | Banco SabadellGuipuzcoano..... | 943 370 006 |
| Etumeta AEK euskaltegia..... | 607 609 379 | Banco Popular Español..... | 943 370 411 |
| Kalezar Eguneko Zentroa..... | 943 365 249 | BBVA..... | 943 377 155 |
| Gure Pakea Zahar Egoitza..... | 943 368 770 | Caja Rural Kutxa..... | 943 368 842 |
| Gure Elkartea Zahar Egoitza..... | 943 371 751 | Argindarra - Iberdrola..... | 901 202 020 |
| Arrate Zahar Egoitza..... | 692 898 492 | Gas naturala - Naturgas..... | 902 123 456 |
| Usurbilgo Salbatore Parrokia..... | 943 361 239 | Telefonica..... | 1004 |
| Noaia! Kultur Elkartea..... | 943 360 321 | Euskaltel..... | 900 840 840 |

Goardiako farmaziak

Osteguna 06 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Ostirala 07 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Larunbata 08 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Igandea 09 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Astelehena 10 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Asteartea 11 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Asteazkena 12 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

Otsailak 06 - Otsailak 16

Osteguna 13 GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

Ostirala 14 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Larunbata 15 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

Igandea 16 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

LARUNBATETAN,
Usurbilgo bi farmaziak ireki-
ta egongo dira: 9:00-13:30

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
CASTILLA-LARBURU
URBIETA KALEA, 7 HERNANI
943552941

Gainontzeko datak www.cofgipuzkoa.com web orrian ikusgai.

Agenda otsaila

07 ostirala

■ **Matrikulazio kanpainaren azken eguna**
Udarregi ikastolan (943 361 216), Aginagako Eskolan (943 372 044) eta Zubietako Eskolan (943 372 931).

08 larunbata

09 igandea

■ **Gipuzkoako Trinkete Txapelketa.** Eskuz binaka, Nagusiak 1. maila: EPLE-Pagazpe. 10:30ean, Iruran.

Sagarrondotik Sagardora ikastaroa ostegun honetan abiatuko da

Otsailetik urrira luzatuko da Alkartasuna Kooperatibak, Sagarkik, Bizi Sagardoak eta Udalak antolatutako ikastaro praktikoa. Hauek izango dira lehen bi saioak:

- Otsailak 6: 18:00 “Sagarrondoen eta sagar basatietatik sortutako landareen arteko desberdintasunak. Nola sortu landare osasuntsu bat”. Juan Gamio (18:00etan).
- Otsailak 15: 9:00-13:00 “Sagastien neguko kimaketa, eta ongarriketa”. Aitor Etxeandia.

Oharrak:

- Kimaketa praktikak bertako sagastietan egingo dira.



“Nola sortu landare osasuntsu bat” hitzaldia eskainiko du Juan Gamiok. Argazkia: erran.eus

- Ikastaro egunak aldatuak izan daitezke.
- Lehen saioan izan ezik, gainerakoak 9:00-13:00 artean.
- Prezioa: 99 euro (Alkartasunako bazkideek doan). Egun solteetan izena eman daiteke.
- **Izen ematea:** 943 361 114
alkartasuna@usurbil.com

Hitz-Ahoren hitzaldia, gurasoei zuzendua

Hitz-Ahok gurasoei zuzendutako tailer bat antolatu du, Arremanitz eta Usurbilgo Udalarekin elkarlanean. “Tratu onez ari garenean, badirudi momentu gatazkatsuek ez daukatela lekurik eta tentsio uneak desagertzen direla. Baina ez da horrela”, dio Hitz-Ahok. “Pertsonon arteko harremanetan gatazkak ematen dira, saihestezina da. Familian, helduen eta haur nahiz nerabeen artean ere ematen dira, eta hauei aurre egiteko baliabide falta izaten da batzuetan”. Horixe da, beraz, tailerra antolatzeko arrazoi nagusia. Gatazkari beste begirada batetik heldu nahi zaio, eta eraldaketarako gako batzuk eman.

ten dira, eta hauei aurre egiteko baliabide falta izaten da batzuetan”. Horixe da, beraz, tailerra antolatzeko arrazoi nagusia. Gatazkari beste begirada batetik heldu nahi zaio, eta eraldaketarako gako batzuk eman.

Otsailaren 6an osteguna

- Ikastola gorrian.
- Arratsaldeko 17:00etan.

Datozenak

Otsailean goizez zabalduko dituzte KzGuneko atea

Otsailaren 3tik aurrera, 9:00-13:00 artean zabalduko dituzte KzGuneko atea:

- Otsailak 17-26, 9:00-11:00 “Kudeatu zaitez Google aplikazioekin”.

Informazio gehiago:

Kale Nagusia, 37
943 023 684
tutor.usurbil@kzgunea.net

Otsailaren 22an, Inauteri jaia

“Dantza” izango dugu aurtengo mozo-roetarako gaia, otsailaren 22an ospatuko dugun jaialdian. Dantzariak, txaranga, kontzertuak, jolasak... Egitaraua oparora izango da beste behin ere.



Mozorroak prestatzeko bi aste geratzen dira oraindik.

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA
EKAITZ GARMENDIA MERINO

Kale Nagusia 10, 1.C4
Tlf 943 37 08 78

RPS: 28/17

20170
USURBIL

ARRANDEGIA
PELLO
ASTEARTETIK-LARUNBATERA
8:30-13:30
EGIN ZURE ESKAERAK WHATAPP-ETIK!
650 31 31 91 USURBIL

ETXETRESNEN
KONPONKETAK
eta **SALMENTA**
MARKA GUZTIAK
azkar, prezio onean
20 URTEKO ESPERIENTZIA
645417665
XABIER Usurbil

URDAIRA

Sagardotegia

astelehenak itxita

Aginaga 943 37 26 91



OTSUA-ENEA SAGARDOTEGIA

943 55 68 94

Osinaga bailara, HERNANI



LARRE-GAIN

DOLARE SAGARDOTEGIA

Urtarrilaren 18tik maiatzak 3ra
TXOTX-GARAI

Hernanitik autobus zerbitzu propioa
Igande gaua eta astelehenetan ITXITA

Larre-Gain Baserria Ereñotzu - Hernani

Tel: 943 55 58 46 Mugik: 616 287 867

www.iruinsagardotegia.com

IRUIN sagardotegia

TXOTX denboraldi
berria 2020, primerako
sagardoekin

943.361.229



ELUTXETA

SAGARDOTEGIA • ERRETEGIA

Urte guztian irekita astelehena izan ezik.



Oztaran bailara • URNIETA (Gipuzkoa) • 943 55 69 81



943 37 39 95

Kalezar 39, USURBIL sidreria@sidrassaizar.com www.sidrassaizar.com

aginaga

SAGARDOTEGIA

Hotela **

URTE OSOAN
ETXEKO SAGARDOA
TXOTXETIK!

ORAIN, BERTAN LOTAN
GELDITZEKO AUKERA!
ASTELEHENETAN ITXITA

943 36 67 10



Aginaga, USURBIL www.aginagasagardotegia.com

Txotxetik sagardoa
jarraitu usadioa!

%100 bertako satarra

Tel: 943 365 031

Santuenea



#UrbilKonpromisoa

Bertso saioak

Elkargunean




Otsailak 08 18:30

**Andoni Egaña &
Aitor Mendiluze**

Aurkeztu eta zuzendu:

Jon Zaldua



urbil.es